

## XEDAPEN OROKORRAK

### HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

## 4220

*366/2013 DEKRETUA, ekainaren 18koa, Akuikultura Haztegiako teknikari-tituluaren curriculumak ezartzen duena.*

Kualifikazioei eta Lanbide Heziketari buruzko ekainaren 19ko 5/2002 Lege Organikoaren 10.1. artikulua ezartzen duenez, Estatuko Administrazio Orokorrak finkatuko ditu Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionalan aditzera emandako lanbide-prestakuntzako eskaintzak osatuko dituzten profesionaltasun-ziurtagiriak eta -tituluak, betiere Konstituzioaren 149.1.30. eta 7. artikuluan xedatutakoaren arabera eta Lanbide Heziketaren Kontseilu Nagusiari kontsultatu ondoren.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 39.6. artikulua ezartzen duenez, Espainiako Gobernuak, autonomia-erkidegoei kontsultatu ostean, Lanbide Heziketako ikasketei dagozkien titulazioak ezarriko ditu, baita titulazio horietako bakoitzaren curriculumaren oinarriko alderdiak ere.

Ekonomia iraunkorraren martxoaren 4ko 2/2011 Legeak eta Ekonomia iraunkorraren Legea osatzen duen martxoaren 11ko 4/2011 Lege Organikoak –Lanbide Heziketaren eta kualifikazioen 5/2002 Lege Organikoa eta Hezkuntzaren 2/2006 Lege Organikoa aldatzen dituenak–, hainbat lege-aldaketa adierazgarri eragin dituzte bestelako ekonomia baten garapena sustatzeko eta bizkortzeko, hau da, ekonomia lehiakorragoa eta berritzaileagoa, produkzio-sektore tradizionalak berritzeko gauza izango dena eta kalitateko enplegu egonkorra eskatzen duten beste jarduera batzuetarantz bidea egiteko gauza izango dena sustatzeko eta bizkortzeko.

Hezkuntza-sistemako lanbide-heziketaren antolamendu orokorra ezartzen duen uztailaren 29ko 1147/2011 Errege Dekretuaren 9. artikuluan definitzen da lanbide-heziketako tituluen egitura. Horretarako, Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionala, Europar Batasunak finkatutako jarraibideak, eta gizarte-intereseko beste alderdi batzuk hartu dira kontuan.

7. artikulua titulu horien lanbide-profila zehazten du. Lanbide-profil horretan sartuko dira konpetentzia orokorra, lanbide-konpetentzia, konpetentzia pertsonalak eta sozialak eta, hala badagokio, Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionalaren konpetentzia-atalak. Horrenbestez, titulu bakoitzak lanbide-kualifikazio oso bat, gutxienez, hartuko du barnean, betiere Lanbide Heziketako tituluek produkzio-sistemaren beharrei eta hiritartasun demokratikoa egikaritzeko aukera emango duten balio pertsonal eta sozialei eraginkortasunez erantzuteko.

Otsailaren 28ko 254/2011 Errege Dekretuak Akuikultura Haztegiako teknikariaren titulua ezartzen du eta haren gutxienezko irakaskuntzak zehazten ditu. Dekretu horrek ordezkatu egiten du apirilaren 22ko 726/1994 Errege Dekretua, Akuikultura Haztegiako teknikariaren titulua arautzen zuena.

Bestetik, Hezkuntza-sistemako lanbide-heziketaren antolamendu orokorra ezartzen duen aurrez aipatutako 1147/2011 Errege Dekretuaren 8. artikulua 2. atalean ezartzen duenez, hezkuntza-administrazioek ezarriko dituzte Lanbide Heziketako irakaskuntzen curriculumak. Edonola ere, errege dekretu horretan bertan xedatutakoa eta titulu bakoitza erregulatzen duten arauetan xedatutakoa errespetatu beharko dute.

2013ko urriaren 7a, astelehena

Euskal Autonomia Erkidegoaren berezko eskumenen esparruari dagokionez, Autonomia Estatutuaren 16. artikuluan aditzera ematen denez, «Konstituzioaren lehen erabaki gehigarrian ezarritakoa aplikatzeko, irakaskuntza, zabalera, maila, gradu, era eta espezialitate guztietan, Euskal Autonomia Erkidegoaren kompetentziapean dago, Konstituzioaren 27. artikuluan ezarritakoari eta hura garatzen duten Lege Organikoei, eta 140.1.30 artikulua Estatuari ematen dizkion ahal-menei eta hori guztia betetzeko eta bermatzeko behar den goi inspekzioari kalterik egin gabe».

Bestalde, otsailaren 26ko 32/2008 Dekretuak, hezkuntza-sistemaren barruan, Lanbide Heziketaren antolamendua eta araudia ezartzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoaren esparrurako.

Azaldutako aurrekarien arabera, dekretu honen helburua da Akuikultura Haztegi-tako teknikariaren tituluari dagozkion Lanbide Heziketako irakaskuntzetarako curriculum-a ezartzea Euskal Autonomia Erkidegoan, betiere Akuikultura Haztegi-tako teknikariaren titulua ezartzen duen eta tituluaren gutxieneko irakaskuntzak finkatzen dituen otsailaren 28ko 254/2011 Errege Dekretuaren babesean.

Akuikultura Haztegi-tako teknikariaren tituluaren curriculumean alderdi hauek deskribatzen dira: alde batetik, tituluak adierazten duen lanbide-profila (kualifikazioak eta kompetentzia-atalak zerrendatzen dira, eta kompetentzia profesionalak, pertsonalak eta sozialak deskribatzen dira); eta, bestetik, tituluak biltzen dituen helburu orokorren eta lanbide-moduluen bidez, besteak beste, ezarritako irakaskuntzak (lanbide-modulu bakoitzari dagozkion ikaskuntzaren emaitzak, ebaluazio-irizpideak eta edukiak, eta horiek antolatu eta ezartzeko jarraibideak eta zehaztapenak barne hartuta).

Helburu orokorrak profileen deskribatzen diren kompetentzia profesional, pertsonal eta soziale-tatik atera dira. Haietan, ikasleak heziketa-zikloaren amaieran eskuratu behar dituen gaitasunak eta lorpenak adierazten dira; hortaz, heziketa-zikloa osatzen duten lanbide-moduluetako bakoitzean landu beharreko edukiak eta ikasleak bereganatu behar dituen ikaskuntzaren emaitzak lortzeko lehen iturria dira.

Modulu bakoitzean jasotako edukiak irakatsi eta ikasteko prozesuaren euskarria dira; ikasleak trebetasun eta abilezia teknikoak, etorkizun profesionalean aurrera egiteko kontzeptuzko oinarri zabala eta lortu nahi den kualifikazioarekiko lanbide-nortasun koherentea islatuko duten portaerak eskura ditzan.

Honako dekretu hau bideratzean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 19. artikulutik 22. artikulura bitartean aurreikusten diren izapideak bete dira.

Ondorioz, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren proposamenez, Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluak emandako txostena eta gainerako aginduzko txostenak aztertuta, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren arabera, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2013ko apirilaren 22an egindako bilkuran eztabaidatu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATZEN DUT:

## I. KAPITULUA

### XEDAPEN OROKORRA

1. artikulua.– Xedea eta aplikazio-esparrua.

1.– Dekretu honek Akuikultura Haztegi-tako teknikariaren tituluari dagozkion Lanbide Heziketako irakaskuntzetarako curriculum-a ezartzen du Euskal Autonomia Erkidegoan.

2.– Ikastetxeak duen autonomia pedagogikoaren eta antolamendukoaren ildotik, hari dago-kio bere Ikastetxearen Ikasketa Proiektua ezartzea, eta proiektu horretan ezarriko ditu bere irakaskuntza-lanaren ezaugarriak eta nortasuna zehazteko, eta lanbide-moduluaren programazioak prestatzeari buruzko irizpideak finkatzeko beharrezko erabakiak.

3.– Ikastetxearen Ikasketa Proiektuaren esparruan, heziketa-zikloaren ardura duen irakasle taldeari eta, zehazki, irakasle bakoitzari dagokio programazioak prestatzea. Horretarako, ezar-tzen diren helburu orokorrak kontuan izan beharko ditu, lanbide-modulu bakoitzean bildutako ikaskuntzaren emaitzak eta edukiak errespetatu beharko ditu, eta irakaskuntzen erreferentziatzko lanbide-profila hartu beharko du euskarri.

## II. KAPITULUA

### TITULUAREN IDENTIFIKAZIOA ETA LANBIDE PROFILA

2. artikulua.– Tituluaren identifikazioa.

Akuikultura-haztegietako teknikariaren titulua elementu hauek identifikatzen dute:

- Izena: Akuikultura Haztegiak.
- Maila: Erdi-mailako Lanbide Heziketa.
- Iraupena: 2.000 ordu.
- Lanbide-arloa: Itsasoa eta arrantza.
- Irakaskuntzaren Nazioarteko Sailkapen Normalizatuko erreferentea: CINE-3.

3. artikulua.– Lanbide-profila.

1.– Titulu honen konpetentzia orokorra honako honetan datza: akuikultura-espezieak produ-zitzera eta instalazioen oinarrizko mantentze-lanak egitera zuzendutako jarduerak gauzatzea, eskatutako eragiketa-kalitatea lortuta, eta ingurumenaren eta laneko arriskuaren prebentzioaren arloetan indarrean dagoen araudia beteta.

2.– Konpetentzia profesionalak, pertsonalak eta sozialak.

Honako hauek dira titulu honen konpetentzia profesionalak, pertsonalak eta sozialak:

- a) Hazkuntza-jarduerak egiteko behar diren tresneria eta materialak antolatzea.
- b) Egiatzatzea hazkuntza-instalazioak eta -tresneria eraginkorrak direla akuikultura-jarduerak hasi eta garatzeko, betiere produkzio-protokoloen arabera.
- c) Hazkuntza osagarriak produzitzea behar den kuantitatean eta kalitatean.
- d) Haztegietan akuikultura-espezieak produzitu eta gizentzea, beharrezko den kalitatea dutela.
- e) Azken produktua merkaturatzeko prestatzea eta biltzea, ezarritako plangintzaren arabera.
- f) Akuikultura-instalazioen eta -tresneriaren oinarrizko mantentze-eragiketak egitea, inguru-men-arautegia eta laneko arriskuak prebenitzeko betetzeko.
- g) Materialak eta tresneria garbitu eta desinfektatzea, ezarritako protokoloari jarraituz.
- h) Instalazioko matxurak antzematea eta lehenbailehen nagusiei jakinaraztea.

- i) Akuikulturako produkzio-prozesuetan laginak hartzea.
- j) Elikadura- eta hazkuntza-parametro fisiko-kimikoak kontrolatzea, berauek neurtuz eta egoera- eta jarraipen-orrietan erregistratuz.
- k) Hazkuntzan anomaliak antzematea, jardun-protokoloak aplikatuta.
- l) Prebentzio- eta tratamendu-neurriak aplikatzea, ezarritako profilaxi-protokoloei jarraituz.
- m) Produkzio-prozesuan laneko arriskuen prebentziorako eta ingurumen-babeserako neurriak eta protokoloak aplikatzea, pertsonen, lan-ingurunearen eta ingurumenaren gaineko kalteak saihestearren.
- n) Eraginkortasunez komunikatzea, bere lanaren esparruan esku hartzen duten pertsonen autonomia eta kompetentzia errespetatuz.
- ñ) Dagokion kompetenziaren esparruan erantzukizunez eta autonomiaz jardutea, eta esleutako lana antolatzea eta garatzea, lan-ingurunean beste profesional batzuekin talde-lanean edo lankidetzan jardunez.
- o) Produkzio-prozesuetako aldaketa teknologikoen eta antolamenduko ondorizko lan-egoera berrietara egokitzea, eta «bizialdi osoko ikaskuntzarako» dauden baliabideak eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea jakintzak eguneratzeko.
- p) Bere jarduerari dagozkion gorabeherak arduraz konpontzea, horien sorburuak identifikatuz, bere gaitasunaren eta autonomiaren esparruan.
- q) Dagokion jardueraren ondorizko eskubideak baliatzea eta betebeharrak betetzea, indarrean dagoen legerian ezarritakoaren arabera, eta bizitza ekonomikoan, sozialean eta kulturean aktiboki parte hartuz.
- r) Produkzioko edo zerbitzugintzako prozesuetan bildutako lanbide-jardueretan, kalitate-prozedurak, irisgarritasun unibertsalekoak eta «denontzako diseinukoak» aplikatzea.
- s) Enpresa txiki bat sortu eta abiarazteko oinarrizko kudeaketa egitea, eta dagokion lanbide-jardueran ekimena izatea.

3.– Titulu honetan biltzen diren Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionaleko kualifikazioen eta kompetentzia-atalen zerrenda:

– Lanbide-kualifikazio osoak:

a) Elikagai biziak produzitzea. MAP007\_2. (295/2004 Errege Dekretua, otsailaren 20koa). Kompetentzia-atal hauek hartzen ditu barnean:

UC0017\_2: Fitoplanktona haztea.

UC0018\_2: Zooplanktona haztea.

b) Arrainak, krustazeoak eta zefalopodoak gizentzea. MAP008\_2. (295/2004 Errege Dekretua, otsailaren 20koa). Kompetentzia-atal hauek hartzen ditu barnean:

UC0019\_2: Akuikultura-espezieak karioletan gizentzea.

UC0020\_2: Akuikultura-espezieak lehorreko instalazioetan gizentzea.

c) Molusku bibalbioak gizentzea. MAP100\_2. (1087/2005 Errege Dekretua, irailaren 16koa). Konpetentzia-atal hauek hartzen ditu barnean:

UC0283\_2: Molusku bibalbioak sistema esekietan gizentzea.

UC0284\_2: Molusku bibalbioak parkean haztea.

d) Akuikultura-haztegietan produzitzea. MAP101\_2. (1087/2005 Errege Dekretua, irailaren 16koa). Konpetentzia-atal hauek hartzen ditu barnean:

UC0285\_2: Akuikultura-espezieak ugaltzea eta inkubatzea.

UC0286\_2: LARBAK haztea.

UC0287\_2: Larba ondokoak, haziak eta arrainkumeak haztea.

– Osatu gabeko lanbide-kualifikazioak:

a) Akuikulturako instalazioak mantentzea. MAP495\_2. (1222/2010 Errege Dekretua, urriaren 1ekoa). Konpetentzia-atal hauek hartzen ditu barnean:

UC1622\_2: Akuikultura-enpresa batean instalazioak, makineria eta tresneria mantentzeko eragiketak egitea.

4. artikulua.– Lanbide-ingurunea.

1.– Profesional honek, batik bat, akuikultura-enpresetan, akuarioetan, ikerketa-zentroetan eta itsaskilari-kofradietan egiten du lan, honako arlo hauetan: hazkuntza osagarrietako produkzioa, arrainen produkzioa, krustazeeoen produkzioa eta moluskuoen produkzioa, eta akuikultura instalazioen mantentze-lanak (norberaren nahiz besteren kontura).

2.– Zeregin eta lanpostu aipagarrienak hauek dira:

Fitoplanktona hazteko langilea.

Zooplanktona hazteko langilea.

Itsas uretan gizentze-arrainak hazteko langilea.

Ur kontinentaletan arrainak hazteko langilea.

Krustazeeoak hazteko langilea.

Natura-ingurunean moluskuak hazteko langilea.

Egitura flotatzaileetan edo urperatuetan moluskuak gizentzeko langilea.

Parkeko moluskuak gizentzeko langilea.

Itsas uretako arrainak ugaltzeko langilea.

Ur kontinentaletako arrainak ugaltzeko langilea.

Itsas uretako arrain-larbak hazteko langilea.

Moluskuak ugaltzeko langilea.

Moluskuoen larbak hazteko langilea.

Krustazeoak ugaltzeko langilea.

Krustazeoen larbak hazteko langilea.

Akuikultura-instalazioetako fluido-zirkuituen konpontzailea.

Akuikultura-instalazioetako fluido-zirkuituen mantentzailea.

Akuikultura-instalazioetako hazkuntzako eraikinen eta egituren konpontzailea.

Akuikultura-instalazioetako hazkuntzako eraikinen eta egituren mantentzailea.

Arrainak, moluskuak eta krustazeoak hazteko sistemen instalatzailea.

Arrainak, moluskuak eta krustazeoak hazteko sistemen konpontzailea.

Arrainak, moluskuak eta krustazeoak hazteko sistemen mantentzailea.

Akuikultura-instalazioetako girotzeko, beroa eta hotza sortzeko, iragazteko, elikatzeko, ponpatzeko, dosifikatzeko eta fluidoak tratatzeko tresneriaren konpontzailea.

Akuikultura-instalazioetako girotzeko, beroa eta hotza sortzeko, iragazteko, elikatzeko, ponpatzeko, dosifikatzeko eta fluidoak tratatzeko tresneriaren mantentzailea.

Akuikultura-instalazioetako girotzeko, beroa eta hotza sortzeko, iragazteko, elikatzeko, ponpatzeko, dosifikatzeko eta fluidoak tratatzeko tresneriaren doitzzailea.

Akuikultura-instalazioetako lantegiaren arduraduna.

Akuikultura-instalazioetako instalatzaile, doitzzaile, konpontzaile eta mantentzaileen taldeburua.

### III. KAPITULUA

#### HEZIKETA-ZIKLOAREN IRAKASGAIK, ESPAZIOAK ETA EKIPAMENDUAK, ETA IRAKASLEAK

5. artikulua.– Heziketa-zikloaren irakasgaiak.

1.– Heziketa-zikloaren helburu orokorrak:

a) Hazkuntza-eremuak identifikatzea, planoak eta eskemak interpretatuta; tresneria eta materialak antolatzeke.

b) Materialak eta tresneria hautatu eta kokatzea, horiek dagokien eginkizunarekin lotuta eta jardueren kronograma interpretatuta; hazkuntza-prozesuan erabiltzeko.

c) Instalazioak eta tresneria prestatu eta egiaztatzea, instalazioekin lotutako dokumentazio teknikoa eta jardun-protokoloak interpretatuta; haien eraginkortasuna egiaztatzeke.

d) Kontrolatze, aberaste eta uztatzeko teknikak aplikatzea, jardun-protokoloak interpretatuta, eta higie- eta osasun-neurriak beteta; hazkuntza osagarriak sortzeko.

e) Higie- eta desinfekzio-prozedurak gauzatzea, higienari eta desinfekzioari buruzko arauak, metodoak eta produktuak aplikatuta; hazkuntza osagarriak sortzeko.

f) Produkzio-sistemak identifikatzea, horiek espezieekin eta hazkuntza faseekin lotuta; akuikultura espezieak produzitzeko.

- g) Hazkuntzako sistema, espezie eta fase bakoitzera egokitutako teknikak aplikatzea, baldintzak, parametroak eta bitartekoak deskribatuta; akuikultura-espezieak produzitzeko.
- h) Hazkuntzako espezieak girotu, hautatu eta ateratzeko sistemak aplikatzea, produktuaren kalitate-eskakizunak eta teknikak elkarrekin lotuta; azken produktua prestatu eta uzatzeko.
- i) Akuikulturako instalazioak eta tresneria gainbegiratu eta mantentzea, eskuliburuak interpretatuta eta esku-hartzea behar duten elementuak antzeman eta maneiatuta (narriadura, higadura... dela eta); oinarrizko mantentze-eragiketak egiteko.
- j) Materialak eta tresneria prestatu eta antolatzea, produktuak eta bitartekoak antzemandak, eta teknikak aplikatuta; haiek garbitu eta desinfektatzeko.
- k) Instalazioetan disfunczioak identifikatu eta deskribatzea, tresneria eta instalazioak osatzen dituzten elementu guztiak sistematikoki behatuta, eta kausa-efektu erlazioak aztertuta; matxurak antzemateko.
- l) Laginketa-metodoak identifikatu eta deskribatzea, horiek aplikatu beharreko metodologia analitikoarekin lotuta; laginak hartzeko.
- m) Hazkuntzako laginak bildu eta maneiatzea, analitikaren arabera ezarritako protokoloak interpretatuta; hazkuntzako laginak hartzeko.
- n) Hazkuntzaren berezko parametro fisiko-kimikoak eta zooteknikoak interpretatzea, espezie eta fase bakoitzaren berariazko mailak identifikatuta; hazkuntza kontrolatzeko.
- ñ) Ingurunearen, organismoen eta elikagaien neurketak egitea, teknikak aplikatuta eta parametroak erregistratuta; hazkuntza kontrolatzeko.
- o) Ingurunearen itxuraren, eta banakoen portaeraren eta itxuraren desbideratzeak antzeman eta baloratzea, egoera normalekin alderatuta; hazkuntzaren anomaliak antzemateko.
- p) Prebentzio-teknikak eta teknika terapeutikoak aplikatzea, produktuak manipulatzeko protokoloak eta arauak interpretatuta; patologiei aurrea hartu eta horiek tratatzeko, elikadura-segurtasunaren gaineko eraginak kontuan izanda.
- q) Ikasteko prozesuan lanaren kalitate-prozedurak eta erreferentziako produkzio-sektorearenak hobetzeko beharrezkoak diren teknikak aplikatzea eta aztertzea.
- r) Komunikazio-teknikak aplikatzea, zabaldu beharreko edukietara, horien helburura eta hartzailen ezaugarrietara egokituta; prozesuaren eraginkortasuna ziurtatzeko.
- s) Talde-lanak garatzea eta haien antolamendua baloratzea, tolerantziaz eta errespetuz parte hartuz, eta erabaki kolektiboak edo bakarkakoak hartzea, erantzukizunez eta autonomiaz jarduteko.
- t) Baldintza sozialak eta lanekoak arautzen dituen lege-esparrua kontuan izanda, gizarteko agente aktibo gisa dituen eskubideak eta betebeharrak zein diren jakitea, herritar demokratiko gisa parte hartzeko.
- u) Bizialdi osoko ikaskuntzarako dauden baliabideak, eta komunikazio- eta informazio-teknologiak aztertu eta erabiltzea; ikasteko eta ezagupenak eguneratzeko, hobekuntza profesional eta pertsonalerako aukerak antzemandak, eta hainbat egoera profesionaletara eta lanekoetara egokitzeko.



v) Kultura ekintzailearekin, enpresakoarekin eta ekimen profesionalekoarekin erlazionatutako prozedurak erabiltzea, enpresa txiki baten oinarrizko kudeaketa egiteko edo lan bati ekiteko.

w) Lanbide-jarduerarekin lotutako ingurumen- eta lan-arriskuak aztertzea, eta horien sorburuekin lotzea, hartu beharreko prebentzio-neurriak oinarritzeko eta dagozkion protokoloak aplikatzeko, nork bere buruari, inguruneari eta ingurumenari kalterik ez egitearren.

x) Irisgarritasun unibertsalari eta «denontzako diseinuari» erantzuteko beharrezkoak diren teknikak aplikatzea eta aztertzea.

y) Sormenezko irtenbideak hartu eta balioestea lan-prozesuak garatzean sortzen diren arazo eta gorabeheren aurrean, dagozkion jardueran izaten diren gertakariak erantzukizunez ebazteko.

2.– Honakoa da heziketa-zikloa osatzen duten lanbide-moduluen zerrenda:

- a) Hazkuntza osagarrien teknikak.
- b) Arrainak gizentzeko teknikak.
- c) Moluskuak gizentzeko teknikak.
- d) Hazkuntzako instalazioak eta tresneria.
- e) Arrainen haztegiko teknikak.
- f) Moluskuen haztegiko teknikak.
- g) Krustazeoen hazkuntza-teknikak.
- h) Ingeles teknikoa.
- i) Laneko prestakuntza eta orientabidea.
- j) Enpresa eta ekimen sortzailea.
- k) Lantokiko prestakuntza.

I. eranskinean zehaztu da lanbide-moduluen ordu-esleipena eta lanbide-moduluak zein kurtso-tan eman beharko diren.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak arautu ditzakeen heziketa-eskaintzen araberako egokitu ahal izango da moduluen ordu-esleipena eta moduluak zein kurtso-tan emango diren, dekretu honen 10. artikuluan xedatutakoarekin bat eginik.

3.– Lanbide-modulu bakoitzerako, ikaskuntzaren emaitzak (prestakuntzaldia amaitzean ikasleak jakin, ulertu eta egin dezan espero dena deskribatzen dutenak), eta ebaluazio-irizpideak eta eman beharreko edukiak ezartzen dira. II. eranskinean ezarri da hori guztia.

4.– Lantokiko prestakuntzako modulua, bestalde, bigarren kurtso azken hamahiru asteetan garatuko da, eta ikastetxean egindako lanbide-modulu guztien ebaluazio positiboa lortu ondoren egingo da.

5.– Europako Batzordeak ezarritako oinarrizko kompetentziak garatzeko eta sakontzeko gomen-dioei jarraituz eta lehentasuneko arloekin lotzen den prestakuntzaren garapenaren indarrez, curriculumean Ingeles teknikoa modulua txertatuta landuko da heziketa-ziklo horretan atzerriko hizkuntza, betiere Kualifikazioei eta Lanbide Heziketari buruzko ekainaren 19ko 5/2002 Lege Organikoaren hirugarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera.



6. artikulua.– Espazioak eta ekipamenduak.

Prestakuntza garatzeko, eta ezarritako emaitzak eta konpetentziak lortzeko gutxieneko espazioak eta ekipamenduak III. eranskinean zehaztu dira.

7. artikulua.– Irakasleak.

1.– Heziketa-zikloko lanbide-modulu bakoitzerako irakasleen espezialitateak eta irakasteko eskumena IV. eranskinaren 1. atalean ezarri dira.

2.– Irakaskuntza-kidegoetako irakasleei oro har eskatzen zaizkien titulazioak otsailaren 23ko 276/2007 Errege Dekretuaren 13. artikuluan ezarritakoak dira. Izan ere, Errege Dekretu horrek onartzen du Hezkuntzako maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan aipatzen diren irakasle kidegoetako espezialitate berrietan sartzeko eta eskuratzeko araudia, eta arautzen du Lege horren hamazazpigarren xedapen iragankorrean adierazten den sarrerako aldi baterako erregimena. Irakasleen espezialitateetarako 1. paragrafoan adierazten diren titulazio baliokideak (irakaskuntzaren ondorioetarako) IV. eranskinaren 2. atalean jaso dira.

3.– Hezkuntzakoaz bestelako administrazioetan barnean hartuta dauden titulartasun pribatuko nahiz titulartasun publikoko ikastetxeetako irakasleentzat, titulua osatzen duten lanbide-moduluak emateko beharrezko titulazioak eta eskakizunak Dekretu honen IV. eranskinaren 3. atalean eman dira aditzera. Nolanahi ere, aditzera emandako titulazio horiek lortzeko irakaskuntzek lanbide moduluen helburuak bete beharko dituzte. Helburu horiek barnean hartuta ez badaude, titulazioaz gain, lanbide-arlo horrekin lotzen den sektorean gutxienez hiru urteko lan-esperientzia frogatu beharko da «ziurtagiri» bidez –irakaskuntzaren emaitzekin inplizituki lotzen diren enpresetan produkzio-jarduerak garatzen hiru urteko esperientzia frogatu beharko du ziurtagiriak–.

#### IV. KAPITULUA

##### BESTE IKASKETA BATZUETARAKO SARBIDEAK ETA LOTURA. BALIOZKOTZEAK, SALBUESPENAK ETA EGOKITASUNAK. BALIOKIDETASUNAK, ETA ONDORIO AKADEMIKOAK ETA PROFESIONALAK. URRUTIKO ESKAINTZA ETA BESTELAKO MODALITATEAK

8. artikulua.– Beste ikasketa batzuetarako sarbideak eta lotura.

1.– Akuikultura Haztegieta teknikiariaren tituluak aukera ematen du erdi-mailako edozein heziketa-ziklotara zuzenean sartzeko, betiere horretarako ezartzen diren onarpen-baldintzetan.

2.– Akuikultura Haztegieta teknikiariaren tituluak aukera ematen du, halaber, lanbide-arlo bereko goi-mailako heziketa-ziklo guztietan sartzeko, betiere Hezkuntza-sistemako lanbide-heziketaren antolamendu orokorra ezartzen duen uztailaren 29ko 1147/2011 Errege Dekretuan ezarritako baldintzen arabera, eta proba bidez edo berariazko ikastaro bat gaindituta; baita beste heziketa-ziklo batzuetan sartzeko ere, eskatutako zikloetarako lotura ematen duen batxilergoaren modalitate berekoak direnean.

3.– Azkenik, titulu horrek aukera ematen du batxilergoko edozein modalitatetan sartzeko, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 44.1 artikuluan eta Hezkuntza-sistemako lanbide-heziketaren antolamendu orokorra ezartzen duen uztailaren 29ko 1147/2011 Errege Dekretuaren 34. artikuluan xedatutakoaren arabera.

9. artikulua.– Baliozkotzeak, salbuespenak eta egokitasunak.

1.– Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren babesean Laneko prestakuntza eta orientabidea modulua edo Enpresa eta ekimen sortzailea modulua gaindituta dituenak modulu horiek baliozkotuta izango ditu lege horren babespeko beste edozein ziklotan.

2.– Hezkuntza-sistemaren antolamendu orokorrari buruzko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoaren babesean ezarritako lanbide-moduluen eta maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren babesean ezarritakoen arteko baliozkotzeak V. eranskinean adierazten dira.

3.– Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan hezkuntza-sistemako lanbide-heziketaren antolamendu orokorra ezartzen duen otsailaren 26ko 32/2008 Dekretuaren 27. artikuluan ezarritakoaren arabera, Lantokiko prestakuntza lanbide-modulua osorik edo zati batean salbuestea erabaki ahal izango da, baldin eta heziketa-ziklo honekin lotutako lan-esperientzia egiaztatzen bada, artikulua horretan jasotako baldintzen arabera.

4.– Laneko esperientziaren bidez eskuratutako lanbide-kompetentziak aintzat hartzeko uztailaren 17ko 1224/2009 Errege Dekretuan ezarritako prozeduraren bitartez, titulu honetan barnean hartzen diren kompetentzia-atal guztiak egiaztatu dituztenek Laneko prestakuntza eta orientabidea modulua baliozkotzea eskatu ahal izango dute, baldin eta:

– Urtebeteko lan-esperientzia, gutxienez, egiaztatzen badute.

– Jarduera prebentiboaren oinarriko funtzioak betetzeko ezarritako prestakuntzaren egiaztatzea badute –Prebentzio-zerbitzuen erregelamendua onartzen duen urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera emandako egiaztatzea izango da–.

5.– Titulu honen profilarekin lotzen diren kompetentzia-atal guztiak egiaztatu dituztenek Ingeles Teknikoko modulua baliozkotzea eskatu ahal izango dute, baldin eta proiektuko lanbide-modulua gainditzen badute. Edonola ere, gutxienez 3 urteko lan-esperientzia egiaztatu beharko dute, uztailaren 29ko 1147/2011 Errege Dekretuaren 40.5. artikuluan xedatutakoaren indarrez.

6.– Akuikultura Haztegi-tako teknikariaren tituluaren irakaskuntzako lanbide-moduluen eta kompetentzia-atalen arteko egokitasuna –horiek baliozkotzeko edo salbuesteko– eta titulu honetako lanbide-moduluen eta kompetentzia-atalen arteko egokitasuna –horiek egiaztatzeko– VI. eranskinean jasotzen dira.

10. artikulua.– Urrutiko eskaintza eta bestelako modalitateak.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak ziklo honetako irakaskuntzak araubide orokorrean ezarritakoaz bestelako eskaintza osoaren modalitatean eta urrutiko irakaskuntzan edo beste modalitate batzuetan eskaini ahal izateko baimena eta eskaintza horren oinarriko alderdiak (hala nola moduluen iraupena eta sekuentziazioa) arautuko ditu.

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA.– Titulazio baliokideak eta lanbide-trebakuntzekiko lotespena.

1.– Apirilaren 22ko 726/1994 Errege Dekretuak ezarritako Akuikultura Haztegi-tako teknikariaren tituluak eta otsailaren 28ko 254/2011 Errege Dekretuak ezartzen duen Akuikultura Haztegi-tako teknikariaren tituluak ondorio profesional eta akademiko berberak izango dituzte.

2.– Laneko prestakuntza eta orientabidea lanbide-modulurako dekretu honetan ezarritako prestakuntzak trebatu egiten du laneko arriskuen prebentzioko oinarriko mailako jardueretarako urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuan ezarritako lanbide-erantzukizunez arduratzeko, baldin

2013ko urriaren 7a, astelehena

eta gutxienez 45 eskola-ordu ematen badira. Errege-dekretu horrek prebentzio-zerbitzuen araudia onartzen du.

#### BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.

Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako Sailburuordetzak aukera izango du dekretu honen I. eranskinean ezarritakoaz bestelako iraupena duten proiektuak baimentzeko, baldin eta moduluen kurtsokako banaketa aldatzen ez bada eta titulua sortzeko errege-dekretuan modulu bakoitzari esleitutako gutxieneko orduak errespetatzen badira.

#### AZKEN XEDAPENA.– Indarrean jartzea.

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu, eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2013ko apirilaren 22an.

Lehendakaria,  
IÑIGO URKULLU RENTERÍA.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,  
CRISTINA URIARTE TOLEDO.

## EKAINAREN 18KO 366/2013 DEKRETUAREN I. ERANSKINA

## LANBIDE MODULUEN ZERRENDA, ORDU ESLEIPENA ETA KURTSOA

KODEA	LANBIDE MODULUA	ORDU ESLEIPENA	KURTSOA
0703	1.– Hazkuntza osagarrien teknikak	198	1
0704	2.– Arrainak gizentzeko teknikak	165	1
0705	3.– Moluskuak gizentzeko teknikak	165	1
0706	4.– Hazkuntzako instalazioak eta tresneria	231	1
0707	5.– Arrainen haztegiko teknikak	231	2
0708	6.– Moluskuen haztegiko teknikak	231	2
0709	7.– Krustazeoen hazkuntza-teknikak	198	1
E100	8.– Ingeles Teknikoa	33	1
0710	9.– Laneko prestakuntza eta orientabidea	105	2
0711	10.– Enpresa eta ekimen ekintzailea	63	2
0712	11.– Lantokiko prestakuntza.	380	2
	Zikloa, guztira	2.000	

## EKAINAREN 18KO 366/2013 DEKRETUAREN II. ERANSKINA

LANBIDE MODULUAK: IKASKUNTZAREN EMAITZAK,  
EBALUAZIO-IRIZPIDEAK ETA EDUKIAK

1. lanbide-modulua: Hazkuntza osagarrien teknikak

Kodea: 0703

Kurtsoa: 1

Iraupena: 198 ordu

A) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak.

1.– Beharrezko tresneria eta materialak produkzio-planaren arabera prestatzen ditu, eta hazkuntza-fase eta espezie bakoitzarekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Tresneria eta materialak identifikatu ditu.

b) Tresneria eta materialak espezieekin eta hazkuntza-faseekin lotu ditu.

c) Tresneria eta materialak ordenan banatu ditu.

d) Tresneriaren eta materialen eraginkortasuna egiaztatu du.

e) Behin erabili ondoren, tresneria eta materialak biltegiratu ditu.

f) Taldean eta erantzukizunez lan egin du.

g) Ordena- eta garbitasun-prozedurak errespetatu ditu.

h) Fitoplanktona hazteko teknikak aplikatu ditu eta hazkuntza-baldintzak deskribatu ditu, higiene- eta osasun-neurriak kontuan izanda.

2.– Fitoplanktona hazteko teknikak aplikatzen ditu eta hazkuntza-baldintzak deskribatzen ditu, higiene- eta osasun-neurriak kontuan izanda.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Anduiak kutsaduratik aske mantendu eta maneiatu ditu.

b) Bolumen txiki eta handietarako hazkuntza-bitartekoak prestatu ditu.

c) Parametro fisiko-kimikoak neurtu eta erregistratu ditu.

d) Hazkuntza-ontzia hautatu du, bolumen txiki eta handietan banatzeko eta erreplikatzeko.

e) Hazkuntza bolumen txiki eta handietan inokulatu du.

f) Hazkuntza bolumen txiki eta handietan uztatzeko teknikak aplikatu ditu.

g) Garbitu, desinfektatu eta esterilizatzeko prozedurak errespetatu ditu.

3.– Errotiferoak produzitzeko teknikak aplikatzen ditu eta hazkuntza-baldintzak deskribatzen ditu, higiene- eta osasun-neurriak kontuan izanda.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Anduiak kutsaduratik aske mantendu eta maneiatu ditu.
- b) Parametro fisiko-kimikoak neurtu eta erregistratu ditu.
- c) Elikagai kantitatea elikadura-taulen arabera prestatu du.
- d) Sare egokiez uztatu du.
- e) Larben nutrizio-eskakizunen arabera aberastu du.
- f) Beste produkzio-andel batean inokulatu du.
- g) Garbitu, desinfektatu eta esterilizatzeko prozedurak errespetatu ditu.

4.– Artemia-nauplioak lortzeko teknikak aplikatzen ditu eta hazkuntza-baldintzak deskribatzen ditu, higiene- eta osasun-neurriak kontuan izanda.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Larbak produzitzeko beharrezkoa den artemia-zisteen kantitatea prestatu du.
- b) Parametro fisiko-kimikoak neurtu eta erregistratu ditu.
- c) Artemia-zistek inkubatu ditu.
- d) Eklosionatutako artemia-zistek uztatu ditu.
- e) Artemia-nauplioak aberastu ditu.
- f) Garbitu, desinfektatu eta esterilizatzeko prozedurak errespetatu ditu.

5.– Hazkuntza osagarrien kantitatea eta kalitatea zehazten ditu, kalkuluak eta behaketak eginda, eta lortutako datuak interpretatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Hazkuntzen laginak hartu eta prestatu ditu.
- b) Fitoplanktonaren zelula-dentsitatea eta zooplankton-kontzentrazioa kalkulatu ditu.
- c) Produkzio-unitateetako banakoen guztizko kopurua kalkulatu du.
- d) Errotiferoen produkzioan, eme obigeroen ehunekoa kalkulatu du.
- e) Zooplanktonaren aberaste-maila baloratu du.
- f) Hazkuntza osagarrietan, kutsadurako adierazle makroskopikoak eta mikroskopikoak antze-man ditu.
- g) Lortutako datuak dagozkien tauletan erregistratu ditu, IKTak oinarrizko mailan maneiatuta.

6.– Garbiketako, desinfekzioko, esterilizazioko eta osasun-tratamenduetako zereginak egiten ditu, materialak eta produktuak identifikatuta, eta kasuak kasu horiek aplikatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Eskuak eta botak desinfektatu ditu.

- b) Desinfektatzeko disoluzioak prestatu eta erabili ditu.
- c) Hazkuntzako materialak eta ontziak desinfektatzeko autoklabea erabili du.
- d) Hazkuntzako ura esterilizatu eta desinfektatu du.
- e) Zooplanktona garbitu du.
- f) Artemia-zistek desinfektatu ditu.
- g) Artemia-zistek deskapsulatu ditu.
- h) Garbitu, desinfektatu eta esterilizatzeko prozedurak errespetatu ditu.

7.– Laneko arriskuen prebentzioari eta ingurumen-babesari buruzko arauak bete ditu, eta arriskuak, eta horiei aurrea hartzeko neurriak eta tresneria identifikatu ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Norbera eta ingurumena babesteko beharrezko neurriak eta tresneria hautatu ditu.
- b) Materialak, erremintak, tresnak, makinak eta garraiobideak manipulatzearen ondoriozko arriskuak eta arriskugarritasun-maila identifikatu ditu.
- c) Segurtasun-arauak errespetatuz lan egin du tresneriarekin eta erremintekin.
- d) Mekanizazioko materialak, erremintak eta tresnak manipulatzearan istripuen sorburu ohikoenak zein diren identifikatu du.
- e) Makinen segurtasun-elementuak (babesak, alarmak eta larrialdietarako geldialdiak, besteak beste) eta zolatzeko-, alikatatzeko- eta xaflatze-lanak egiteko erabili behar den norbera babesteko ekipamendua (oinetakoa, begien babesa eta jantziak, besteak beste) horiek gauzatzeko eragiketekin eta faseekin lotu ditu.
- f) Materialen, erreminten eta makinen manipulazioa segurtasuneko eta norbera babesteko neurriekin lotu ditu.
- g) Zolatzeko-, alikatatzeko- eta xaflatze-eragiketak prestatu eta egiteko hartu behar diren segurtasuneko eta norbera babesteko neurriak zehaztu ditu.
- h) Ingurumenaren poluzio-iturriak zein izan daitezkeen identifikatu du.
- i) Sortutako hondakinak kudeatu ditu, gaika biltzeko.
- j) Arriskuei aurrea hartzeko lehen faktore gisa, instalazioen eta tresneriaren ordena eta garbitasuna baloratu ditu.

B) Edukiak:

1.– Tresneria prestatzea:

Hazkuntza osagarriak manipulatzeko materialak eta tresnak identifikatzea.

Argiztatzeko, iragazteko, dosifikatzeko, tenperatura kontrolatzeko... tresneria osagarria identifikatzea.

Instalazioen eta tresneriaren mantentze-lanak. Automatismoa.

Kontrolerako tresnak eta prozedurak erabiltzea.



Instalazioetan, tresnerian eta materialetan antzemandako gorabehera oro jakinaraztea.

Hazkuntzako ontziak edo andelak.

Espezie eta hazkuntza-fase bakoitzerako ontzi motak.

Etengabeko produkzio-sistemak.

Jardun protokoloak hazkuntza-fase bakoitzean.

Tresneria osagarrietako tresneriaren eta materialen funtzionamendu-arauak.

Zereginetan aritzea.

Jarrera positiboa eta emaitzak guztientzako modu gogobetegarrian lortzeko norberaren ahalmenean konfiantza izatea.

Gure lanbide-jardunak dituen ondorioak arrazionalizatzea, eta haren efektu positiboen eta negatiboen artean bereiztea.

2.– Fitoplanktona haztea:

Anduien mantentze-lanak eta kalitate-irizpideak.

Fitoplankton-anduiak mantentzea.

Fitoplanktonaren behaketa mikroskopikoa.

Mikroskopiako datuak informatika-erregistroa.

Kutsatzaileak identifikatzea.

Hazkuntzako bitartekoak prestatzea.

Lana baldintza esteriletan egitea.

Parametro fisiko-kimikoak neurtu eta erregistratzea.

Hazkuntzako ontziak hautatzea.

Hematozitometroak erabiltzea.

Fitoplankton-zelulak zenbatzea.

Anduien erreplikak eta banatzeak egitea.

Fitoplankton-anduiak inokulatzea.

Anduiak inokulatzeko tresneria eta materialak identifikatzea.

Fitoplankton-bolumenak uztatzea.

Ordena, garbitasuna, desinfekzioa eta esterilizazioa mantentzea.

Kalitate-irizpideak fitoplankton-anduiak manipulatzeko.

Fitoplankton naturalaren biologia eta ekologia.

Fitoplanktonaren taxonomia.

Akuikulturan erabiltzen diren espezieak.

Mikroskopia-teknikak.

Hazkuntza-bitartekoak: tipologia eta konposizioa.

Parametro fisiko-kimikoak.

Hazkuntza-faseak.

Erreplikak eta banatzeak.

Bolumen txikien eta handien hazkuntza-sistemak.

Inokulatzeko protokoloak.

Segurtasun- eta profilaxi-neurriak.

Fitoplanktona uztatzeko teknikak.

Taldekiekin komunikatzeko norberaren ekimena.

Egin beharreko lanak metodikoki planifikatzea, zailtasunak eta horiek gainditzeko modua aurreikusita.

Prozesuaren fase guztietan ordena eta garbitasuna baloratzea.

3.– Errotiferoen produkzioa.

Anduien mantentze-lanak eta kalitate-irizpidea.

Fitoplankton-anduiak mantentzea.

Lupa binokularrak erabiltzea.

Kutsatzaileak identifikatzea.

Parametro fisiko-kimikoak neurtu eta erregistratzea.

Elikagaia prestatzea.

Errotiferoak uztatzea.

Uztako sareak eta iragazkiak mantentzea.

Errotiferoak aberastea.

Errotiferoen inokulazioa.

Ordena, garbitasuna, desinfekzioa eta esterilizazioa mantentzea.

Errotiferoen biologia eta ekologia.

Errotiferoen anatomia eta fisiologia. Bizi-zikloa.

Errotiferoen taxonomia.

Kalitate-irizpideak fitoplankton-anduiak manipulatzeko.

Produktzio-sistemak.

Parametro fisiko-kimikoak.

Elikagai motak.

Uztatzeko teknikak.

Errotiferoak uztatzeko sistemak.

Aberasgarri motak.

Aberaste-beharrak.

Hazkuntza-faseak.

Errotiferoen inokulazio-protokoloak.

Kalitate-irizpideak errotiferoen inokulazioan.

Taldekideekin komunikatzeko norberaren ekimena.

Egin beharreko lanak metodikoki planifikatzea, zailtasunak eta horiek gainditzeko modua aurreikusita.

Prozesuaren fase guztietan ordena eta garbitasuna baloratzea.

4.– Artemia-nauplioak lortzea.

Artemia-zisteen mantentze-lanak eta kalitate-irizpideak.

Parametro fisiko-kimikoak neurtu eta erregistratzea.

Artemia-zistek inkubatzea.

Artemia-zistek deskapsulatzea.

Artemia-nauplioak uztatzea.

Aberastea.

Ordena, garbitasuna, desinfekzioa eta esterilizazioa mantentzea.

Artemiaren biologia eta ekologia.

Artemiaren erabilera akuikulturan.

Artemia-zisteen kalitate-irizpideak.

Parametro fisiko-kimikoak.

Artemiaren inkubazio-sistemak.

Artemia-nauplioak uztatzeko teknikak.

Artemia-aberasgarrien motak.

Artemiaren aberaste-beharrak.

Taldekideekin komunikatzeko norberaren ekimena.

Egin beharreko lanak metodikoki planifikatzea, zailtasunak eta horiek gainditzeko modua aurreikusita.

Prozesuaren fase guztietan ordena eta garbitasuna baloratzea.

5.– Eskakizun kuantitatiboak eta kualitatiboak:

Laginak hartu eta prestatzea.

Fitoplanktonaren zelula-dentsitateari buruzko kalkuluak egitea.

Zooplanktona zenbatzea.

Banakoien guztizko kopurua kalkulatzeko.

Errotiferoen behaketa mikroskopikoa eta zenbaketa.

Aberaste-protokoloen jarraipena.

Aberasgarria aprobeztatzea.

Kutsatutako hazkuntzak identifikatzea.

Mikroskopioen eta lupa binokularren bidez adierazleak behatzea.

Kutsatutako hazkuntzak maneiatzea.

Mikroskopiako datuak informatika-erregistroa.

IKT tresnak erabiltzea.

Laginak prestatzeko teknikak.

Fitoplanktonaren zelula-dentsitatea.

Zooplanktonaren kontzentrazioa.

Banakoien guztizko kopurua.

Kalkulurako tresna matematikoak.

Errotiferoen eme obigeroen ehunekoa.

Kutsaduraren adierazle makroskopikoak eta mikroskopikoak.

– Jalkinen presentzia.

– Kolorea.

– Beste mikroorganismo batzuen presentzia.

Zelula-taldekatzeko.

Taldekideekin komunikatzeko norberaren ekimena.

Egin beharreko lanak metodikoki planifikatzea, zailtasunak eta horiek gainditzeko modua aurreikusita.

6.– Garbitasuna, desinfekzioa, esterilizazioa eta osasun-tratamenduak.

Eskuak eta botak desinfektatzea.

Desinfektatzeko disoluzioak prestatu eta erabiltzea.

Tresneria eta materialak garbitu eta uretan pasatzea.

Autoklabean hazkuntzako materialak eta ontziak desinfektatzea.

Hazkuntzako ura esterilizatzea.

Zooplanktona garbitzea.

Artemia-zistek desinfektatzea.

Artemia-zistek deskapsulatzea.

Ordenari eta garbitasunari eustea.

Norberaren higieena.

Desinfekzioko disoluzioak.

Autoklabea.

Lehortzeko labea.

Errotiferoak eta artemia garbitzeko teknikak.

Zooplanktona garbitzeko materialak eta tresneria.

Artemia-zistek desinfektatzeko metodoak.

Zisteen eklosio-teknikak.

Materialak eta tresneria desinfektatu eta esterilizatzeko protokoloak.

Lanak egiteko aurreikusitako epeakiko konpromisoa azaltzea.

Jarrera positiboa eta konfiantzazkoa norberaren gaitasunarekiko.

Talde-lanetan elkartasunez parte hartzea eta ahalegina taldeak eskatzen duenera egokitzea.

7.– Segurtasunari eta ingurumenari buruzko arauak betetzea.

Norbera eta ingurumena babesteko neurriak identifikatzea.

Hazkuntza osagarrietako jardueren ingurumen-inpaktua minimizatzeko tresneria egokia erabiltzea.

Haztegiko istripuen sorburuak identifikatzea.

Tresneria ezarritako segurtasun-arauei jarraituz erabiltzen du.

Norbera babesteko jantziak eta ekipamendua erabiltzea.

Erabilitako tresneriaren segurtasun-elementuak identifikatzea.

Zereginak hartu beharreko segurtasun- eta babes-neurriekin lotzea.

Hazkuntza- eta mantentze-eragiketarako egitean segurtasun- eta babes-neurriak identifikatzea.

Hondakinen gaikako biltzea.

Ordenari eta garbitasunari eustea.

Tresneriaren eta instalazioen segurtasunari buruzko arauak.

Istripu-arriskuak ezaugarritzea.

Tresneriaren eta instalazioen segurtasunari buruzko arauak.

Produktu kimikoak erabiltzeko segurtasun-arauak.

Kutsadura-arriskuak ezaugarritzea.

Sortutako hondakinak erretiratzeko hautaketa-irizpideak.

Gizartearen ingurumen- eta kultura-ondarea zaindu eta babesteko balioekiko konpromiso etikorako jarraibideak ezartzea.

Prestakuntza-beharrak positiboki kontuan hartzeko alde zuzeneko jarrera izatea.

2. lanbide-modulua: Arrainak gizentzeko teknikak

Kodea: 0704

Kurtsoa: 2

Iraupena: 165 ordu

A) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak.

1.– Arrainak gizentzearekin lotutako instalazioak eta tresneria ezaugarritzen ditu, horiek deskribatuta eta duten erabilera prozesuaren fase bakoitzarekin lotuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Tresneria eta material bakoitza aurregizentzeko eta gizentzeko eragiketa eta sistema bakoitzarekin lotu du.

b) Tresneria eta materialak eskuliburu teknikoen eta/edo hazkuntza-baldintzen arabera prestatu ditu.

c) Tresneria dagozkion neurri-unitateekin lotu du.

d) Aurregizentzeko eta gizentzeko instalazioetan, prozesu bakoitzari dagozkion materialak eta tresneria erabili ditu.

e) Ordena- eta garbitasun-prozedurak errespetatu ditu.

2.– Aurregizentze- eta gizentze-eragiketetan arrainak maneiatzen ditu, eta animalien osasunari eta ongizateari buruzko irizpideak deskribatu ditu eta aplikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Arrainak hazkuntza-unitateetan erein ditu, haien dentsitatearen eta bolumenaren arabera.

b) Arrainak harrapatu ditu, haien tamainarako eta unitaterako eskatutako aparailuak eta tresnak erabilia.

c) Arrainak aurregizentzeko eta gizentzeko unitateen artean lekualdatu ditu, hazkuntza-sistemaren eta arrainaren tamainaren arabera dagozkion teknikak aplikatuta.

d) Animalien ongizate-irizpideak identifikatu ditu.

e) Animalien ongizate-irizpideak errespetatuz egin ditu eragiketak.

f) Talde-lanetan aritu da.

3.– Arrainak aurregizentzearekin eta gizentzearekin lotutako prozedurak aplikatzen ditu, horien sekuentzia antzemanda eta sekuentzia bakoitzerako berariazko metodologia deskribatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Aurregizentzearekin eta gizentzearekin lotutako eragiketak espeziearekin eta hazkuntza-sistemarekin lotu ditu.

b) Hazkuntza-sistemari lotutako eragiketen sekuentzia identifikatu du.

c) Arrainak sailkatzeko, batez besteko pisuari, populazioaren homogeneotasunari eta animalia-osasunari buruzko irizpideei jarraitu die.

d) Emariak hazkuntza-sistemaren arabera egokitu ditu, biomasa, ingurunearen kalitatea eta eskuragarri dagoen oxigenoa kontuan izanda.

e) Harraparitzaren aurkako sistemak ezarri ditu, hazkuntza-sistemaren eta espezie harraparien arabera.

f) Sareak aldatzeko baldintzak baloratu ditu.

g) Informatika-erregistorako IKTak erabili ditu.

h) Pisuak, biomasak eta dentsitateak zenbatesteko kalkuluak egin ditu.

4.– Arrainen elikagaia prestatu eta banatzen du, pentsuak identifikatu ondoren eta sistema bakoitzerako ezarritako metodoak aplikatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Pentsu eta granulometria mota bakoitza arrainaren motarekin eta tamainarekin lotu du.

b) Dosiak zehaztutako elikadura-taularen arabera egokitu ditu.

c) Hornitutako elikagaiaren sorta egiaztatu eta idatziz jaso du, trazabilitatea eta iraungipena kontrolatzeko.

d) Elikadura-sistema automatikoa egiaztatu eta egokitu du.

e) Elikagaia homogeneoki eta ezarritako kadentzia-denboren arabera banatu ditu.

f) Arrainen asetasun-maila baloratu du.

g) Elikadurak ingurumenaren gainean dituen ondorioak baloratu ditu.

5.– Parametro fisiko-kimikoak eta biologikoak neurtzen ditu, kasuak kasu dagozkion teknikak deskribatuta eta aplikatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Hazkuntza-fase eta -sistema bakoitzerako neurtu beharreko parametroak identifikatu eta lotu ditu.

b) Biometriak egin ditu eta laginak hartu ditu, animalien populazio-adierazgarritasunari, osasunari eta ongizateari buruzko irizpideen arabera.

c) Kalibratutako neurketa-tresneriarekin parametro fisiko-kimikoen neurketak egin ditu.

d) Neurketa-tresneriaren eskuliburu teknikoetan ezarritako protokoloak aplikatu ditu.



e) Egindako neurketak espeziearen, eta hazkuntza-fasearen eta -egoeraren balio-mailarekin lotu ditu.

f) Neurketen desbideratzeak jakinarazi ditu.

g) Gauzatutako jardunei esker, mailaz kanpoko parametroak euren balio normaletara itzuli direla egiaztatu du.

h) Parametroak kontrol-orrietan erregistratu ditu.

6.– Arrainen ingurunea eta ohiko portaera zuzenean behatuta aldaketak antzematen ditu, neurri zuzentzaileak aplikatzen ditu eta horien eragina egiaztatzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Arriskuen prebentzio-neurri gisa, hazkuntza-baldintzak behatzeak duen garrantzia baloratu du.

b) Ingurunean eta organismoak hazkuntzan izan ohi duten portaeran izandako aldaketa nagusiak identifikatu ditu.

c) Aplikatu beharreko neurri zuzentzaileak antzemandako anomaliarekin lotu ditu.

d) Egoera bakoitzerako neurri zuzentzaile egokiak identifikatu ditu.

e) Aldaketa zuzentzeko, protokoloetan adierazitako teknikak eta bitartekoak aplikatu ditu.

f) Aplikatutako neurri zuzentzaileen eraginkortasuna egiaztatu du.

g) Antzemandako anomaliak azkar jakinarazi ditu.

h) Aldaketak eta neurri zuzentzaileak erregistratu ditu.

7.– Garbiketa-lanak eta osasun-tratamenduak egiten ditu, materialak eta produktuak identifikatu, eta horiek hazkuntzaren fase eta sistema bakoitzarekin lotu ondoren.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Produktu kimikoak eta farmakologikoak identifikatu ditu, higieneari, desinfekzioari, prebentzioari eta/edo sendaketari buruzko irizpideak kontuan izanda.

b) Garbiketa- eta higiene-teknikak hazkuntzaren fasea eta sistema kontuan izanda aplikatu ditu.

c) Erabiliko diren produktuek dagozkien etiketetan zehaztutako iraungipen-eskakizunak betetzen dituzten egiaztatu du.

d) Produktu farmakologikoak ezarritako kontzentrazioen arabera prestatu ditu, arrainen biomasaren eta/edo unitatearen bolumena kontuan izanda.

e) Produktu sendagarriak eman ditu, produktuaren ezaugarriak, eta hazkuntzaren fasea eta baldintzak kontuan izanda.

f) Txertoak gaixotasun motaren arabera aplikatu ditu.

8.– Arrantzatu egiten du eta produktua lekualdatzeko prestatzen du, azken produktuaren kalitateari buruzko arauak interpretatuta eta aplikatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Aurretiazko biometriak egin ditu.
- b) Arrainek eskatutako tamaina eta kalitatea dituztela egiaztatu du.
- c) Arrantzaren aurretik produktua prestatzeko aldez aurreko neurriak aplikatu ditu.
- d) Espezieari eta hazkuntza-sistemari aplikatutako arrantza-aparailuak erabili ditu.
- e) Edukiontzia ur- eta izotz-proporzio egokiekin prestatu ditu, sufrimendua minimizatzeko.
- f) Produktuaren kontserbazioa ziurtatzeko teknikak aplikatu ditu.
- g) Harrapatutako arrainen kantitateak edukiontzietan kantitate zehatzetan banatu ditu haiek garraiatzeko.

9.– Laneko arriskuen prebentzioari eta ingurumen-babesari buruzko arauak bete ditu, eta arriskuak, eta horiei aurrea hartzeko neurriak eta tresneria identifikatu ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Norbera eta ingurumena babesteko beharrezko neurriak eta tresneria hautatu ditu.
- b) Materialak, erremintak, tresnak, makinak eta garraiobideak manipulatzearen ondoriozko arriskuak eta arriskugarritasun-maila identifikatu ditu.
- c) Segurtasun-arauak errespetatuz lan egin du tresneriarekin eta erremintekin.
- d) Mekanizazioko materialak, erremintak eta tresnak manipulatzearan istripuen sorburu ohikoenak zein diren identifikatu du.
- e) Makinen segurtasun-elementuak (babesak, alarmak eta larrialdietarako geldialdiak, besteak beste) eta zolatze-, alikatatze- eta xaflatze-lanak egiteko erabili behar den norbera babesteko ekipamendua (oinetakoak, begien babesa eta jantziak, besteak beste) horiek gauzatzeko eragiketekin eta faseekin lotu ditu.
- f) Materialen, erreminten eta makinen manipulazioa segurtasuneko eta norbera babesteko neurriekin lotu du.
- g) Zolatze-, alikatatze- eta xaflatze-eragiketak prestatu eta egiteko hartu behar diren segurtasuneko eta norbera babesteko neurriak zehaztu ditu.
- h) Ingurumenaren poluzio-iturriak zein izan daitezkeen identifikatu du.
- i) Sortutako hondakinak kudeatu ditu, gaika biltzeko.
- j) Arriskuei aurrea hartzeko lehen faktore gisa, instalazioen eta treneriaren ordena eta garbitasuna baloratu ditu.

B) Edukiak:

1.– Instalazioen eta tresneriaren ezaugarriak:

Hazkuntza-unitateak prestatzea: andelak, urmaelak eta kaiolak.

Tresneria prestatzea.

Makineria eta tresneria maneiatzea.

Oinarrizko mantentze-lanak eta muntaiak.

Tresneria motak dagozkien neurri-unitateekin lotzea.

Instalazioak eta tresneria erabiltzean ordena- eta garbitasun-prozedurak erabiltzea.

Instalazio motak.

Kokatze-irizpideak.

Instalazioen egitura eta funtzionamendua.

Zirkuitu irekiak eta birzirkulazioak.

Instalazio mota bakoitzean erabiltzen den tresneria.

Neurri-unitateak.

Jardun-protokoloak.

Lankidetzan aritzeko, taldean lan egiteko eta informazioa jakinarazteko espiritua.

Jarduera teknikoaren eta berriren bitarteko eta prozeduren bilakaera historikoa aurkitzeko jakin-mina izatea.

Taldekiekin komunikatzeko norberaren ekimena.

2.– Aurregizentzean eta gizentzean arrainak maneiatzea:

Hazkuntza-planaren arabera arrainak ereitea.

Arrantzako edukiontziak prestatzea.

Merkataritzarako arrainak arrantzatzea.

Arrainak maneiatzea, animalien ongizate-irizpideak errespetatuz.

Hazkuntza-unitateak ereiteko irizpideak.

Edukiontzietako banaketa-irizpideak.

Animalien ongizate-irizpideak.

Lankidetzan aritzeko, taldean lan egiteko eta informazioa jakinarazteko espiritua.

Egin beharreko lanak metodikoki planifikatzea, zailtasunak eta horiek gainditzeko modua aurreikusita.

3.– Aurregizentzeko eta gizentzeko prozedurak:

Arrainkumeez hornitzea (estentsiboak).

Bajak biltzea.

Markoak, konportak eta sareak garbitzea.

Andelak sifoitzea.

Emariak eta berritzeak egokitzea.

Sareak aldatu eta konpontzea. Materialak berritzea.

Datuak hartzea eta informatika bidez erregistratzea.

Arrain gazteak sailkatu eta banatzea.

Harraparitzaren aurkako kontrol-sistemak instalatzea.

Hazkuntzaren biomasa eta dentsitatea zenbatesteko kalkuluak egitea.

Aurregizentze- eta gizentze-eragiketak.

Hegazti-harraparitzaren aurkako kontrola.

Arrainak sailkatu eta banatzeko irizpideak.

Talde-lanerako prestasuna.

Lanbidearen zereginak egitean segurtasuna antolatu eta kudeatzeko teknikak antzeman eta baloratzea.

Gizartearen ingurumen-ondarea eta kultura zaindu eta babesteko balioekiko konpromiso etikorako jarraibideak ezartzea.

4.– Elikagaia prestatu eta banatzea.

Pentsu mota eta granulometria gizendu beharreko espeziearekin eta horren tamainarekin lotzea.

Pentsu-dosiak hazkuntza-programaren arabera prestatzea.

Elikatze-sistema automatikoa doitztea.

Elikagaiak adierazitako tekniken arabera banatzea.

Datuak interpretatzea eta erregistratzea.

Arrainen asetasuneko portaerak eta parametroak interpretatzea.

Elikaduraren garrantzia.

Granulometriaren, espeziearen eta arrainaren tamainaren arteko lotura.

Elikadura-taulak.

Elikagaien trazabilitate- eta iraungipen-irizpideak.

Elikatze-sistemak.

Elikaduraren ondoriozko inpaktuak eta arriskuak ingurumenaren gainean.

Txukuntasuna eta argitasuna kontroleko egoera-orriak betetzean.

Gizartearen ingurumen-ondarea eta kultura zaindu eta babesteko balioekiko konpromiso etikorako jarraibideak ezartzea.

5.– Parametro fisiko kimikoak eta biologikoak neurtzea.

Laginak hartzea.

Laginak prestatzea.

Tresneriaren bitartez parametroen neurketak egitea.

Neurgailuak kalibratzea.

Neurketa-tresneria zuzen erabiltzea.

Hazitako espeziearen arabera, parametroen maila egokiak hautatzea.

Laginak prestatzea.

Datuak erregistratzea.

Parametro fisiko-kimikoak: tenperatura, oxigeno disolbatua, gazitasuna, amoniakoa eta nitritoak.

Neurketak eta balioespenak.

Populazioaren azterketa. Batez besteko pisua eta biomasa.

Populazioaren adierazgarritasun-irizpideak.

Neurri-unitateak.

Unitate-aldaketak.

Neurketa-tresneriarekin jarduteko protokoloak.

Espezieak hazteko maila parametrikoko egokiak.

Adierazgarritasun-irizpideak.

Lankidetzan aritzeko, taldean lan egiteko eta informazioa jakinarazteko espiritua.

Txukuntasuna eta argitasuna kontroleko egoera-orriak betetzean.

Lanak egiteko ezarritako (aurreikusitako) epeetako konpromisoa.

6.– Ingurunean eta arrainen portaeran aldaketak antzematea:

Behaketa bidez, arrainen portaera anomaloaren jarraibideak identifikatzea.

Anomalia motak neurri zuzentzaile egokiekin lotzea.

Aplikatu beharreko neurri zuzentzaileak identifikatzea.

Adierazitako neurri zuzentzaileak aplikatzea.

Aplikatutako neurrien eraginkortasuna egiaztatzea.

Hazkuntza-prozesuaren gorabeherak erregistratzea.

Arrainen osasunean eragina duten inguruneko desbideratzeak.

Arrainen portaera anomaloaren seinale nagusiak:

– Apetitirik eza.

– Kolorazio-aldaketak.

– Taldekatze arraroak.

– Igeriketa alderraia.

– Aztoramena.

– Letargia.

Arrainen portaera anomaloen sorburuak.

Gomendatutako neurri zuzentzaileak.

Talde-lanean aritzeko prestasuna.

Ezartzen zaizkigun aldaketen aurrean jarrera arduratsua eta malgua izatea.

Gizartearen ingurumen-ondarea eta kultura zaindu eta babesteko balioekiko konpromiso etikorako jarraibideak ezartzea.

Egin beharreko lanak metodikoki planifikatzea, zailtasunak eta horiek gainditzeko modua aurreikusita.

7.– Garbitasuna- eta osasun-tratamenduak.

Produktu kimikoak prestatu eta hornitzea.

Produktu kimiko eta farmakologiko ohikoenak horien erabilerarekin lotzea.

Hazkuntza motaren arabera aplikatu beharreko garbitasun- eta higiene-teknikak identifikatzea.

Txerto mota ohikoenak eta horiek jartzeko metodoak identifikatzea.

Txertoak ezarritako protokoloek jarraituz aplikatzea.

Hazkuntzarako baimendutako produktu kimikoak eta farmakologikoak.

Segurtasun-irizpideak eta -arauak.

Baimendutako produktu kimikoetako etiketen sinboloak.

Produktu kimikoak erabili eta dosifikatzeko irizpideak.

Gizartearen ingurumen-ondarea eta kultura zaindu eta babesteko balioekiko konpromiso etikorako jarraibideak ezartzea.

Ezagutza zientifikoaren eta teknologikoaren, eta hazten diren espezieen balioen, bizimoduaren eta bizi-baldintzen arteko lotura ulertzea.

Gure lanbide-jardunak dituen ondorioak arrazionalizatzea, eta haren efektu positiboen eta negatiboen artean bereiztea.

8.– Arrainak harrapatzea eta lekualdatzeko prestatzea:

Biometriak egitea.

Informatika-tresnen bidez datuak erregistratzea.

Arrantzaren kalitate-parametroak baloratzea.

Merkaturatu aurretik arrainak prestatzea.

Espeziearen eta hazkuntza-sistemaren arabera, arrantza-prozedurak gauzatzea.

Biltegiratu eta garraiatzeko edukiontziak prestatzea.

Arrantza edukiontzietan banatzea.

Arrainaren kalitate- eta freskotasun-parametroak.

Arrainen merkataritza-kalitateari buruzko irizpideak.

Freskoan kontserbatzeko teknikak.

Garraiorako segurtasun-irizpideak.

Egin beharreko lanak metodikoki planifikatzea, zailtasunak eta horiek gainditzeko modua aurreikusita.

Taldekieekin komunikatzeko norberaren ekimena.

9.– Segurtasunari eta ingurumenari buruzko arauak betetzea.

Norbera eta ingurumena babesteko neurriak identifikatzea.

Arrainak gizentzeko jardueren ingurumen-inpaktua minimizatzeko tresneria egokia erabiltzea.

Haztegiko istripuen sorburuak identifikatzea.

Erabilitako tresneriaren segurtasun-elementuak identifikatzea.

Norbera babesteko jantziak eta ekipamendua erabiltzea.

Zereginak hartu beharreko segurtasun- eta babes-neurriekin lotzea.

Hazkuntza- eta mantentze-eragiketak egitean segurtasun- eta babes-neurriak identifikatzea.

Hondakinen gaikako biltzea.

Ordenari eta garbitasunari eustea.

Istripu-arriskuak ezaugarritzea.

Tresneriaren eta instalazioen segurtasunari buruzko arauak.

Produktu kimikoak erabiltzeko segurtasun-arauak.

Kutsadura-arriskuak ezaugarritzea.

Sortutako hondakinak erretiratzeko hautaketa-irizpideak.

Gizartearen ingurumen-ondarea eta kultura zaindu eta babesteko balioekiko konpromiso etikorako jarraibideak ezartzea.

Ordena eta garbitasuna.

Talde-lanarekiko eta gorabeherak jakinarazteko konpromisoa.

Gure lanbide-jardunak dituen ondorioak arrazionalizatzea, eta haren efektu positiboen eta negatiboen artean bereiztea.

3. lanbide-modulua: Moluskuak gizentzeko teknikak.

Kodea: 0705

Kurtsoa: 1

Iraupena: 165 ordu

A) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak.



1.– Baliabide materialak eta giza baliabideak prestatzen ditu, horien ezaugarriak eta eginkizunak sistemarekin eta hazten den espezie bakoitzari dagokion prozesuaren fasearekin lotuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Hazkuntza-sistema bakoitza eta dagozkion produkzio-faseak sailkatu ditu.
- b) Sistema bakoitzerako eta prozesuaren fase bakoitzerako beharrezko materialak, tresneria eta bitartekoak identifikatu ditu.
- c) Material eta tresneria eskuragarrien eta defizitarioen inbentarioa egin du.
- d) Baliabide materialak eta giza baliabideak prestatu eta antolatu ditu.
- e) Instalazioen, materialen eta tresneriaren egokitasuna, kalitatea eta funtzionaltasuna gainbegiratu ditu.
- f) Instalazioen eta tresneriaren erabilerako mantentze-lanak egin ditu.
- g) Informazioa prozesatu eta antolatu du, informatika-bitartekoak erabilia.
- h) Lan-taldearekin erantzukizunean lankidetzan aritu da.

2.– Bibalbioen hazia lortzeko zereginak gauzatzen ditu, kalkuluak eta prestaketa-eragiketak eginda, eta haien kalitatea eta kantitatea egiaztatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Produkzio-helburuen arabera, beharrezko hazia eta biltzaile kopurua kalkulatu du.
- b) Haziaren eskaera bideratu du.
- c) Hazten ari diren espezieen berariazko hazi-biltzaile artifizialak prestatu eta instalatu ditu.
- d) Hazia atera edo hartzeko eremua eta garaia hautatu ditu, espezieari buruzko irizpide bioekologikoen arabera.
- e) Biltzaile artifizial edo naturaletatik hazia ateratzeko teknikak hautatu eta aplikatu ditu.
- f) Haziaren kalitate biologiko-sanitarioa egiaztatu du.
- g) Hazia kalitate-irizpideen eta produkzio-helburuen arabera hautatu eta sailkatu du.
- h) Hazia lortzeko sistema bakoitzaren ingurumen-eragina ebaluatu du.
- i) Erein aurretik hazia estabulatu du, ingurumen-baldintza egokietan.

3.– Bibalbion aurreragizendu eta gizentzeko teknikak aplikatzen ditu, espezie eta hazkuntza-sistema bakoitzerako berariazko metodologia deskribatuta eta sekuentziatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Aurreragizendu eta gizentzeko teknikak espezieekin eta hazkuntza-baldintzekin lotu ditu.
- b) Produkzio-prozesuaren fase bakoitza sailkatu eta ezaugarritu du.
- c) Produkzio-jarduerak sekuentzialki programatu ditu.
- d) Espezie bakoitzerako hazkuntza-substratu egokia prestatu du.

- d) Berariazko aurregizentze- edo gizentze-substratuak erein ditu.
- f) Bakantze- eta banatze-lanak egin ditu, banakoen dentsitatea kontrolatzeko.
- g) Harraparien, lehiakideen eta epibionteen prebentzio- eta kontrol-metodoak ezarri ditu.
- h) Betiere, erantzukizunez, autonomiaz, ekimen pertsonalaz eta lan-taldean laguntzeko espi-  
tuaz jardun du.
- i) Informatika-sistemak erabili ditu informazioa antolatu, kontsultatu eta eztabaidatzeko.

4.– Zefalopodoak gizentzeko teknikak aplikatzen ditu, hazkuntza-metodologia eta -sistemak deskribatuta eta sekuentziatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Gizentzeko teknikak espezieekin eta hazkuntza-baldintzekin lotu ditu.
- b) Produkzio-prozesuaren fase bakoitza sailkatu eta ezaugarritu du.
- c) Produkzio-jarduerak sekuentzialki programatu ditu.
- d) Zefalopodoak gizentzeko instalazioak eta tresneria prestatu ditu.
- e) Zefalopodoak eskatutako aparailuen eta tresnen bidez harrapatu ditu.
- f) Sexua bereizteko zereginak egin ditu, banakoen gizentzea kontrolatzeko.
- g) Prebentzio- eta kontrol-metodoak ezarri ditu.
- h) Betiere, erantzukizunez, autonomiaz, ekimen pertsonalaz eta lan-taldean laguntzeko espi-  
tuaz jardun du.
- i) Informatika-sistemak erabili ditu informazioa antolatu, kontsultatu eta eztabaidatzeko.

5.– Hazkuntzaren bilakaera kontrolatzen du, parametro fisiko-kimikoak neurtuta, eta kalitate biologikoa eta patologikoa egiaztatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Hazkuntzen garapenean prebentzioak duen garrantzia baloratu du.
- b) Laginak hartu eta prestatu ditu laborategira bidaltzeko.
- c) Gorabehera patologikoen, ingurumenekoen eta ekologikoen adierazleak egiaztatu ditu.
- d) Hazkuntza, biziraupena eta gizentzea kontrolatu ditu.
- e) Emaizta analitikoak egiaztatu ditu.
- f) Neurri prebentiboak eta zuzentzaileak aplikatu ditu.
- g) Informazioa erregistratu eta zabaldu du.
- h) Behaketak beharrezko arretaz eta zorrotasunez egin ditu.

6.– Produkzioa uztatzen du, produktuak kalitate-irizpideen, azken helburuaren eta indarrean dagoen araudiaren arabera prestatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

2013ko urriaren 7a, astelehena

- a) Produktua ateratzeko egutegia planifikatu eta antolatu du.
- b) Arrantzako aparailuak eta tresneria uztatuko den espeziearekin lotu ditu.
- c) Harrapaketako tresnak eta makineria behar bezala maneiatu ditu.
- d) Merkataritza-eskariaren arabera, harrapaketen kopuru zehatza kalkulatu du.
- e) Harrapaketak eskariaren eta merkataritza-helburuaren arabera prozesatu ditu.
- f) Produktua merkaturatze-protokoloen arabera egokitu ditu.
- g) Sistema informatizatuak erabilia, izakinen, salmenten, gastuen eta mozkinen inbentarioa egin du.

7.– Laneko arriskuen prebentzioari eta ingurumen-babesari buruzko arauak bete ditu, eta arriskuak, eta horiei aurrea hartzeko neurriak eta tresneria identifikatu ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Norbera eta ingurumena babesteko beharrezko neurriak eta tresneria hautatu ditu.
- b) Materialak, erremintak, tresnak, makinak eta garraiobideak manipulatzearen ondoriozko arriskuak eta arriskugarritasun-maila identifikatu ditu.
- c) Segurtasun-arauak errespetatuz lan egin du tresneriarekin eta erremintekin.
- d) Mekanizazioko materialak, erremintak eta tresnak manipulatzearan istripuen sorburu ohikoenak zein diren identifikatu du.
- e) Makinen segurtasun-elementuak (babesak, alarmak eta larrialdietarako geldialdiak, besteak beste) eta zolatze-, alikatatze- eta xaflatze-lanak egiteko erabili behar den norbera babesteko ekipamendua (oinetakoak, begien babesa eta jantziak, besteak beste) horiek gauzatzeko eragiketekin eta faseekin lotu ditu.
- f) Materialen, erreminten eta makinen manipulazioa segurtasuneko eta norbera babesteko neurriekin lotu du.
- g) Zolatze-, alikatatze- eta xaflatze-eragiketak prestatu eta egiteko hartu behar diren segurtasuneko eta norbera babesteko neurriak zehaztu ditu.
- h) Ingurumenaren poluzio-iturriak zein izan daitezkeen identifikatu du.
- i) Sortutako hondakinak kudeatu ditu, gaika biltzeko.
- j) Arriskuei aurrea hartzeko lehen faktore gisa, instalazioen eta tresneriaren ordena eta garbitasuna baloratu ditu.

B) Edukiak:

1.– Tresneria prestatzea:

Moluskuak hazteko sistemak identifikatzea.

Hazkuntza-sistemak espeziearen eta hazkuntza-fasearen arabera sailkatzea.

Fase eta sistema bakoitzean, hazkuntzako materialak, tresneria eta bitartekoak identifikatzea.

Eskuragarri dauden materialaren eta tresneriaren inbentarioa egitea.

Baliabide materialak antolatzea.

Giza baliabideak antolatzea.

Hazkuntzako tresneria eta makineria maneiatzea.

Instalazioen eta tresneriaren erabilerako mantentze-lanak.

Datuak erregistratzeko informatika-tresnak erabiltzea.

Talde-lana antolatzea.

Hazkuntzako instalazioak, egiturak eta sistemak, espeziearen eta zonaren ezaugarrien arabera.

Hazkuntzako materialak, tresneria eta bitartekoak fase eta sistema bakoitzean.

Inbentarioa kontrolatzea.

Gizentzeko instalazioak eta tresneria mantentzeko irizpideak.

Lanbidearen zeregin berrien aurrean prestasuna eta ekimena izatea.

Egin beharreko lanak metodikoki planifikatzea, zailtasunak eta horiek gainditzeko modua aurreikusita.

Prozesuaren fase guztietan ordena eta garbitasuna baloratzea.

Talde-lanetan elkartasunez parte hartzea eta ahalegina taldeak eskatzen duenera egokitzea.

2.– Bibalbioen haziak lortzea:

Populazioen dinamikari buruzko oinarrizko kalkuluak egitea: zenbaketa eta neurketa.

Hazia lortzeko kudeaketa birtuala egitea.

Molusku bibalbioen hazi-biltzaileak prestatu eta manipulatzeko.

Hazia hartzeko/ateratzeko zonak hautatzea.

Hazia hartu eta ateratzeko tresnak identifikatzea.

Biltzaileen haziak ateratzea.

Hazia hautatu eta sailkatzea.

Hazia lortzeko sistemen ingurumen-eragina ebaluatzea.

Bibalbio-haziak estabulatzea.

Hazia eskuratzeko metodoak.

Finkatzeko substratuak eta eskakizun ekologikoak, espeziearen arabera.

Biltzailea motak espezieen eta zona geografikoen arabera.

Hazten den espezie bakoitzaren ugalketako aldiak.

Natura-ingurunetik hazia ateratzeari buruzko araudia.

Hazia hartu eta ateratzeko tresnak.

Biltzaileen hazia ateratzeko teknikak.

Haziaren kalitateari buruzko irizpideak.

Hazia lortzeko lanen ingurumen-eragina.

Haziak estabulatzeko teknikak, espeziearen arabera.

Bitarteko materialetan eta prozesuen antolamenduan berritzeko prestasun eta ekimen pertsonala izatea.

Egin beharreko lanak metodikoki planifikatzea, zailtasunak eta horiek gainditzeko modua aurreikusita.

Gizartearen ingurumen-ondarea eta kultura zaindu eta babesteko balioekiko konpromiso etikorako jarraibideak ezartzea.

Zeregin bat egiteko epeakiko konpromisoa.

3.– Bibalbioak aurregizendu eta gizentzeko teknikak:

Aurregizentze- eta gizentze-teknikak identifikatzea, espeziearen eta hazkuntza motaren arabera.

Bibalbioak gizentzeko prozesuaren faseak sailkatzea.

Bibalbioak gizentzeko prozesuaren faseak deskribatzea.

Gizentze-prozesuko zereginen programazio sekuentziala.

Hazkuntza-substratuak antolatzea.

Bibalbio-haziak substratuan ereitea, horiek gizentzeko.

Populazioen dinamikari buruzko oinarrizko kalkuluak erabiltzea: zenbaketa eta neurketa.

Hazkuntza-dentsitatea kontrolatzea: bakantzeak eta banatzeak.

Harrapariak, lehiakideak eta epibionteak kontrolatzea.

IKT tresnak erabiltzea.

Moluskuen bioekologia.

Bibalbioen anatomia eta fisiologia.

Bibalbioen nutrizio-beharrak.

Bibalbioak aurregizendu eta gizentzeko teknikak eta instalazioak:

Hondoko parkeetako hazkuntzak.

Parte esekietako hazkuntzak.

Parte goratuetako hazkuntzak.

Lehiakideak, harrapariak eta epibionteak: kontrol-metodoak: kontrol-metodoak.

Bibalbioak aurregizendu eta gizentzeko aplikatu beharreko legeria.

Informatika aplikatua.

Egin beharreko lanak metodikoki planifikatzea, zailtasunak eta horiek gainditzeko modua aurreikusita.

Bitarteko materialetan eta prozesuen antolamenduan berritzeko prestasun eta ekimen pertsonala izatea.

Talde-lanetan elkartasunez parte hartzea eta ahalegina taldeak eskatzen duenera egokitzea.

Teknologia berriek kontsulta eta laguntzako elementu gisa duten ahalmena ezagutzea.

4.– Zefalopodoak gizentzeko teknikak.

Gizentze-teknikak identifikatzea, espeziearen eta hazkuntza-sistemaren arabera.

Zefalopodoak gizentzeko prozesuaren faseak sailkatzea.

Zefalopodoak gizentzeko prozesuaren faseak deskribatzea.

Zefalopodoak gizentzeko prozesuko zereginen programazio sekuentziala.

Zefalopodoak gizentzeko instalazioak eta tresneria antolatzea.

Zefalopodoak harrapatu eta garraiatzea.

Zefalopodoen sexua bereiztea.

Sexuaren arabera gizentzea.

Hazkuntza kontrolatzea.

Haztegiak aldiro behatzea.

IKT tresnak erabiltzea.

Zefalopodoen anatomia eta fisiologia.

Zefalopodoen bioekologia.

Zefalopodoen nutrizio-beharrak.

Zefalopodoak gizentzeko teknikak eta instalazioak:

Lehorreko instalazioetako haztegiak.

Egitura flotatzaileetako haztegiak.

Zefalopodoak harrapatzeko aparailuak eta tresnak.

Zefalopodoak harrapatzeko araudia.

Zefalopodoak harrapatu eta garraiatzeari buruzko kalitate-irizpideak.

Zefalopodoen sexu-adierazleak.

Olagarroen sexua bereizteko teknikak.

Zefalopodoak gizentzeko prebentzio-teknikak.

Informatikari buruzko nozioak.

Egin beharreko lanak metodikoki planifikatzea, zailtasunak eta horiek gainditzeko modua aurreikusita.

Bitarteko materialetan eta prozesuen antolamenduan berritzeko prestasun eta ekimen pertsonala izatea.

Talde-lanetan elkartasunez parte hartzea eta ahalegina taldeak eskatzen duenera egokitzea.

Teknologia berriek kontsulta eta laguntzako elementu gisa duten ahalmena ezagutzea.

5.– Hazkuntza kontrolatzea.

Prebentzio-metodoek duten garrantzia baloratzea.

Laginak hartzea.

Laginak laborategirako prestatzea.

Gorabeheren adierazleak identifikatzea.

Hazten diren populazioen hazkuntza kontrolatzea.

Tresneriaren bidez, hazkuntza-parametroen laginak hartzea eta analitika egitea.

Emaizta analitikoak egiaztatzea.

Profilaxia eta prebentzioa.

Hazkuntzan neurri zuzentzaileak eta prebentiboak aplikatzea.

Datuak erregistratzea.

IKT tresnak erabiltzea.

Haztegiak aldiro behatzea.

Hazkuntzako parametroak eta baldintzak.

Laginak hartzeko teknikak.

Marea gorriak eta biotoxinak.

Bibalbioen gorabehera patologikoen eta ingurumenekoen adierazleak.

Zefalopodoen gorabehera patologikoen eta ingurumenekoen adierazleak.

Hazkuntza, biziraupena eta gizentze-egoerak.

Moluskuen tanatogenesia.

Merkataritza-kalitateari buruzko irizpideak.

Biziraupena eta biomasa kontrolatzeko egoera-orriak.

Metodo analitikoak.

Harraparien, lehiakideen eta parasitoen prebentzio- eta kontrol-sistemak.

Talde-lanetan elkartasunez parte hartzea eta ahalegina taldeak eskatzen duenera egokitzea.

Produkzio-prozesu osoan ordena eta garbitasuna baloratzea.

Taldekideekin komunikatzeko norberaren ekimena.

Jarrera positiboa eta emaitzak guztientzako modu gogobetegarrian lortzeko norberaren ahalmenean konfiantza izatea.

6.– Uzta biltzea.

Uzta biltzeko egutegia planifikatzea.

Espeziearen eta hazkuntza-sistemaren arabera, uzta biltzeko aparailuak eta tresneria identifikatzea.

Uzta biltzeko makineria eta tresnak maneiatzea.

Uzta biltzeko banakoak sailkatu eta zenbatzea.

Populazioen dinamikari buruzko oinarrizko kalkuluak: zenbaketa eta neurketa.

Uzta prestatu, garbitu, sailkatu, ontziratatu eta etiketatzea.

Produkzioa kudeatzea.

Izakinen inbentarioa egitea.

IKT tresnak erabiltzea.

Uzta biltzeko aparailuak eta tresneria.

Harrapatu eta ateratzeko prozesuak.

Moluskuak merkaturatzeko aplikatu beharreko legeria.

Balantze ekonomikoak.

Datuen erregistroak.

Gizartearen ingurumen-ondarea eta kultura zaindu eta babesteko balioekiko konpromiso etikorako jarraibideak ezartzea.

Prozesuaren faseetan zein produktuaren aurkezpenean ordena eta garbitasuna baloratzea.

Egin beharreko lanak metodikoki planifikatzea, zailtasunak eta horiek gainditzeko modua aurreikusita.

Bitarteko materialetan eta prozesuen antolamenduan berritzeko prestasun eta ekimen pertsonala izatea.

Teknologia berriek kontsulta eta laguntzako elementu gisa duten ahalmena ezagutzea.

7.– Segurtasunari eta ingurumenari buruzko arauak betetzea.

Norbera eta ingurumena babesteko neurriak identifikatzea.

Moluskuak gizentzeko jardueren ingurumen-inpaktua minimizatzeko tresneria egokia erabiltzea.

Haztegiko istripuen sorburuak identifikatzea.

Tresneria erabiltzean segurtasun-arauak errespetatzea.

Norbera babesteko jantziak eta ekipamendua erabiltzea.



Erabilitako tresneriaren segurtasun-elementuak identifikatzea.

Materialen eta tresneriaren manipulazioa hartu beharreko segurtasun- eta babes-neurriekin lotzea.

Hazkuntza- eta mantentze-eragiketak egitean segurtasun- eta babes-neurriak identifikatzea.

Hondakinen gaikako biltzea.

Ordenari eta garbitasunari eustea.

Istripu-arriskuak ezaugarritzea.

Tresneriaren eta instalazioen segurtasunari buruzko arauak.

Produktu kimikoak erabiltzeko segurtasun-arauak.

Kutsadura-arriskuak ezaugarritzea.

Sortutako hondakinak erretiratzeko hautaketa-irizpideak.

Gizartearen ingurumen-ondarea eta kultura zaindu eta babesteko balioekiko konpromiso etiko-rako jarraibideak ezartzea.

Gure lanbide-jardunak dituen ondorioak arrazionalizatzea, eta haren efektu positiboen eta negatiboen artean bereiztea.

Talde-lanetan elkartasunez parte hartzea eta ahalegina taldeak eskatzen duenera egokitzea.

4. lanbide-modulua: Hazkuntzako instalazioak eta tresneria

Kodea: 0706

Kurtsoa: 1

Iraupena: 231 ordu

A) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak.

1.– Tresneria eta instalazioak hazkuntzako fasearen eta espeziearen arabera prestatzen ditu, haien dokumentazio teknikoa interpretatuta eta ezarritako prozedurak aplikatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Erregulazio eta kontroleko tresneria, makineria eta sistemak identifikatu ditu.
- b) Tresneria eta makineria hazkuntza-egiturekin eta -sistemekin lotu ditu.
- c) Tresneria eta materialak ordenan banatu ditu.
- d) Muntatzeko erremintak eta tresnak hautatu ditu.
- e) Muntaiaren eragiketa-sekuentzia antzeman du.
- f) Hazkuntza-sistemen osagaiak ebaki, lotu eta muntatu ditu.
- g) Hazkuntzako tresneriaren, instalazioen eta egituren funtzionaltasuna eskuz egiaztatu du.
- h) Tresneriaren eta materialen inbentarioa egin du, informatika-euskarrian erregistratu ditu eta biltegiratu ditu.
- i) Materiala zaintzeaz eta tresneria kontserbatzeaz arduratu da.

2.– Hazkuntzako instalazioekin eta faseekin lotuta daude ura eta airea tratatzeko sistemak ezaugarritzen ditu, horien ezaugarriak zehaztuta, eta beharrezko kalkuluak eta doikuntzak eginda.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Ura eta airea tratatzeko erabiltzen diren sistemak identifikatu ditu.
- b) Ur- eta aire-zirkuituen krokisak egin ditu.
- c) Zirkuituen sekzioak kalkulatu ditu.
- d) Zirkuituen emariak kalkulatu ditu.
- e) Zirkuitu itxi baten ekipamenduak euren aplikazioarekin lotu ditu.
- f) Ura aireztatu eta oxigenatzeko sistemak doitu ditu.
- g) Zirkuitu itxiko hazkuntza-sistemak aplikatzean ingurumen-iraunkortasunak duen garrantzia baloratu du.
- h) Informazioa bilatzeko, IKTak erabili ditu.

3.– Tresneria eta elementu kontsumigarrien mantentze prebentiboko lanak egiten ditu, euren eraginkortasun-eskakizunekin lotuta eta dokumentazio teknikoan ezarritako prozedurak aplikatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Mantendu beharreko puntu kritikoak identifikatu ditu.
- b) Ur- eta aire-zirkuituen laneko presioak egiaztatu ditu.
- c) Tresneriaren eta makineriaren funtzionamendu-orduak erregistratu ditu.
- d) Ura eta airea iragazteko tresneriaren kontsumigarriak ordezkatu, doitu eta garbitu ditu.
- e) Automatismoen eta alarmen funtzionamendua egiaztatu du.
- f) Neurketa-tresneria doitu du.
- g) Zirkuituen eta sistemen kontsumoak eta gorabeherak informatika-euskarrian erregistratu ditu.
- h) Kontsumigarrien inbentarioa prestatu du.
- i) Ezarritako antolamendua errespetatu du.

4.– Oinarrizko matxurak eta narriadura antzematen ditu, zirkuituen eta tresneriaren funtzionamendua kontrolatuta, eta haiek dagozkien sorburuekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Hazkuntzako instalazioak eta tresneria begiz ikuskatu ditu.
- b) Disfuntzioa identifikatu du.
- c) Matxura edo akats baten aurreko jardunbideak antzeman ditu.
- d) Matxuraren larritasuna hark produkzio-prozesuan sorrarazten dituen interferentziekin lotu du.
- e) Neurri zuzentzaileak aplikatu ditu.

- f) Gorabehera larriak jakinarazi ditu.
- g) Sortutako gorabeherak informatika-euskarrian erregistratu ditu.
- h) Talde-lanetan aritu da.

5.– Fluidoak eroateko tresneria, makineria eta sistemak desinfektatzen ditu, higiene- eta osasun-protokoloak interpretatuta eta aplikatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Hazkuntzak garatzean instalazioak garbitu eta desinfektatzearen garrantzia baloratu du.
- b) Garbitu eta desinfektatzeko produktuak hautatu ditu.
- c) Disoluzio desinfektatzaileak eskatutako aldizkakotasunez prestatu ditu.
- d) Osasun-hesiak prestatu eta berritu ditu.
- e) Garbitu eta desinfektatzeko teknikak aplikatu ditu.
- f) Garbitu eta desinfektatzeko tresneria eta materialak dagozkien zehaztapenen arabera kon-  
tserbatu ditu.
- g) Ezarritako plangintza errespetatu du.

6.– Laneko arriskuen prebentzioari eta ingurumen-babesari buruzko arauak bete ditu, eta arriskuak, eta horiei aurrea hartzeko neurriak eta tresneria identifikatu ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Norbera eta ingurumena babesteko beharrezko neurriak eta tresneria hautatu ditu.
- b) Materialak, erremintak, tresnak, makinak eta garraio-bideak manipulatzearen ondoriozko arriskuak eta arriskugarritasun-maila identifikatu ditu.
- c) Segurtasun-arauak errespetatuz lan egin du tresneriarekin eta erremintekin.
- d) Mekanizazioko materialak, erremintak eta tresnak manipulatzearan istripuen sorburu ohikoenak zein diren identifikatu du.
- e) Makinen segurtasun-elementuak (babesak, alarmak eta larrialdietarako geldialdiak, besteak beste) eta zolatze-, alikatatze- eta xaflatze-lanak egiteko erabili behar den norbera babesteko ekipamendua (oinetakoak, begien babesa eta jantziak, besteak beste) horiek gauzatzeko eragiketekin eta faseekin lotu ditu.
- f) Materialen, erreminten eta makinen manipulazioa segurtasuneko eta norbera babesteko neurriekin lotu du.
- g) Zolatze-, alikatatze- eta xaflatze-eragiketak prestatu eta egiteko hartu behar diren segurtasuneko eta norbera babesteko neurriak zehaztu ditu.
- h) Ingurumenaren poluzio-iturriak zein izan daitezkeen identifikatu du.
- i) Sortutako hondakinak kudeatu ditu, gaika biltzeko.
- j) Arriskuei aurrea hartzeko lehen faktore gisa, instalazioen eta tresneriaren ordena eta garbitasuna baloratu ditu.

## B) Edukiak:

## 1.– Tresneria eta instalazioak prestatzea.

Akuikultura-instalazioetan erabiltzen diren tresneria, makineria eta kontrol-sistemak identifikatzea.

Instalazioen egitura-elementuak identifikatzea.

Hazkuntza-sistemetan erabiltzen diren elementuen piezakatzea interpretatzea.

Tresneria eta materialak banatzea, programatutako ekintza kontuan izanda.

Hazkuntza-sistemen zatiak prestatu eta finkatzea.

Akuikultura-instalazioen elementuak konpondu eta muntatzea.

Erabili aurretik, tresneriaren eta instalazioen funtzionamendua gainbegiratzea.

Materialen eta tresneriaren inbentarioak egitea.

Datuak erregistratzeko informatika-tresnak erabiltzea.

Hazkuntza-instalazio motak: lehorrekoak, flotatzaileak eta urperatuak.

Hazkuntzako andelen eta urmaelen motak.

Instalazio bakoitzari lotutako tresneriaren eta makineriaren antolaera.

Akuikultura-lantegi bateko tresneriaren eta erreminten antolaera.

Sare motak.

Instalazioen elementu hidraulikoak.

Elikagaiak eman eta kontrolatzeko sistemak eta tresneria ezaugarritzea.

Hazkuntza-sistemei lotutako makineria.

Izakinen, biltegiaren eta inbentarioen kudeaketa.

Hazkuntzako instalazioak eta tresneria mantentzearen garrantzia.

Tresneria eta instalazioak zaintzea eta horiek erabiltzean arreta jartzea.

Zeregin berrien aurrean prestasuna eta ekimena izatea.

Norberaren eta besteen trebetasun-mailak aintzatestea eta balioestea.

## 2.– Sistema hidraulikoen, eta fluidoak eta gasak tratatzeko sistemen ezaugarriak.

Instalazioen planoetan, ur- eta aire-zirkuituak dagozkien elementuekin identifikatzea.

Hazkuntza-sistemetan, eroapen-sarea neurtzea eta sekzioak kalkulatzeko.

Ur-emarien kalkulua neurtzea.

Ur gezaren eta gaziaren birzirkulazio-sistemei lotutako elementuak eta tresneria identifikatzea.

Birzirkulazio-sistemen mantentze-lanak egitea.

Airea tratatzeko tresneria eta sistemak identifikatzea.

Aireztatze-sistema doitzea.

Informazioa bilatzeko informatika-tresnak erabiltzea.

Ura hartu, banatu eta husteko sistemak ezaugarritzea.

Ponpa motak.

Ur geza tratatzeko sistemak.

Ur gazia tratatzeko sistemak.

Akuikulturan aplika daitezkeen irudi geometrikoen bolumenak kalkulatzeko.

Dekantazio-andelak.

Ura iragazteko sistemak: mekanikoa, biologikoa eta kimikoa.

Tutuen sekzioak kalkulatzeko.

Uraren birzirkulazio-sistemak.

Hazkuntza-sistema bakoitzaren ingurumen-inpaktua.

Ura desinfektatu eta esterilizatzeko tresneria.

Ura berotu eta hozteko sistemak eta tresneria.

Kontrol, erregulazio eta segurtasuneko gailuak.

Automatismoak.

Aireztapen- eta oxigenazio-sistemak.

Airearen iragazketa.

Gizartearen ingurumen-ondarea eta kultura zaindu eta babesteko balioekiko konpromiso etikorako jarraibideak ezartzea.

Jarduera teknikoaren eta berriren bitarteko eta prozeduren bilakaera historikoa aurkitzeko jakin-mina izatea.

Zeregin berrien aurrean prestasuna eta ekimena izatea.

3.– Akuikultura-instalazioen erabilerako mantentze-lanak.

Mantentze-lanak identifikatzea.

Aire- eta ur-zirkuituen egoera gainbegiratzea.

Hazkuntzako tresneriaren eta makineriaren funtzionamenduko orduen/egunen erregistroa egitea.

Instalazioak eta tresneria mantentzea.

Neurketa-tresneria doitzea.

Datuak erregistratzeko informatika-tresnak erabiltzea.

Osagaiak berritzea.

Inbentarioak kudeatzea.

Akuikulturako instalazioen eta makineriaren mantentze lanen motak: prebentiboa, zuzentzailea eta baldintzazkoa.

Oinarrizko mantentze-eragiketak.

Instalazioak gainbegiratu eta diagnostikatzea.

Hazkuntzako egiturak mantentzeko protokoloak.

Hazkuntza-instalazioen egitura-elementuak erabili eta mantentzeko protokoloak.

Fluidoak, zirkuituak eta horiei lotutako elementuak tratatzeko sistemak mantentzea.

Tresneria erabili eta mantentzeko metodoak.

Akuikultura-instalazioetako automatismoak eta alarmak.

Akuikultura-instalazioetako neurgailuak: manometroak, presostatoak, termostatoak.

Aplikazio informatikoak.

Talde-lana.

Jarrera positiboa eta konfiantzazkoa norberaren gaitasunarekiko.

Ezartzen zaizkigun aldaketen aurrean jarrera arduratsua eta malgua izatea.

Egin beharreko lanak metodikoki planifikatzea, zailtasunak eta horiek gainditzeko modua aurreikusita.

4.– Matxurak antzematea.

Hazkuntzako instalazioak eta tresneria aldizka ikuskatzea.

Akuikultura-hazkuntzako sistemen disfuntzio ohikoenak identifikatzea.

Sistemaren matxuren edo akatsen aurreko jardunbideak ezagutzea.

Matxuren eragina horrek hazkuntza-prozesuan duen ondorioarekin lotzea.

Instalazioak garbitu eta desinfektatzea, adierazitako jardun-protokoloari jarraituz.

Produktu kimikoak aplikatzeko diluzioak kalkulatu eta prestatzea.

Datuak erregistratzeko informatika-tresnak erabiltzea.

Matxuren historialak eta aplikatutako irtenbideak kudeatzea.

Akuikulturako makineria eta tresneria erregulatu eta kontrolatzeko gailuen funtzionamendua eta aplikazioak.

Akuikulturako makineria eta tresneria erabiltzeko aldagaiak.

Desinfekzioaren garrantzia hazkuntzen bilakaeran.

Sistemetan eta tresnerian disfuntzioak antzemateko sistemak.

Matxurak diagnostikatzea.

Larrialdien aurreko jardun-sistemak.

Instalazioak garbitu eta desinfektatzeko tresneria.

Ur-eroanbideak garbitzeko sistemak.

Garbitzeko eta desinfektatzeko produktuak.

Baimendutako produktu kimikoetako etiketen sinboloak.

Tresneria eta materialak kontserbatzeko protokoloak.

Egin beharreko zereginak betetzean arreta jartzea.

Komunikazio argia eta zehatza.

Talde-lanerako motibazioa.

Gizartearen ingurumen-ondarea eta kultura zaindu eta babesteko balioekiko konpromiso etikorako jarraibideak ezartzea.

5.– Instalazioak garbitu eta desinfektatzea:

Garbitu eta desinfektatzeko tresneria identifikatzea.

Garbitu eta desinfektatzeko tresneria behar bezala erabiltzea.

Garbitu eta desinfektatzeko produktuak identifikatzea.

Disoluzio desinfektatzaileak eskatutako aldizkakotasunaz prestatu eta berritzea.

Osasun-hesiak prestatu eta berritzea.

Instalazioak garbitu eta desinfektatzea, adierazitako jardun-protokoloari jarraituz.

Produktu kimikoak aplikatzeko diluzioak kalkulatu eta prestatzea.

Tresneria eta materialak behar bezala erabili eta biltegitratzea.

Desinfekzioaren garrantzia hazkuntzen bilakaeran.

Instalazioak garbitu eta desinfektatzeko tresneria.

Garbitzeko eta desinfektatzeko produktuak.

Ur-eroanbideak garbitzeko sistemak.

Jardun-protokoloak osasun-hesietan.

Baimendutako produktu kimikoetako etiketen sinboloak.

Tresneria eta materialak kontserbatzeko protokoloak.

Egin beharreko zereginak betetzean arreta jartzea.

Talde-lana.

Taldekieekin komunikatzeko norberaren ekimena.

6.– Segurtasunari eta ingurumenari buruzko arauak betetzea.

Produkzio-prozesuko egoera bakoitzerako norbera babesteko neurriak eta tresneria hautatzea.

Produkzio-prozesuko egoera bakoitzerako norbera babesteko neurriak eta tresneria identifikatzea.

Produkzio-prozesuko egoera bakoitzean, ingurumena babesteko neurriak eta tresneria identifikatzea.

Lan-egoera bakoitzaren arriskugarritasun-maila identifikatzea.

Tresneria eta erremintak erabiltzea segurtasun-arauak errespetatuta.

Haztegiko istripuen sorburuak identifikatzea.

Norbera babesteko jantziak eta ekipamendua erabiltzea.

Zereginak gauzatzean norberaren segurtasun- eta babes-neurriak hartzea.

Zereginak gauzatzean ingurumenaren segurtasun- eta babes-neurriak hartzea.

Egon daitezkeen kutsadura-iturriak identifikatzea.

Ordenari eta garbitasunari eustea.

Hondakinen gaikako biltzea.

Tresneriaren eta instalazioen segurtasunari buruzko arauak.

Produktu kimikoak erabiltzeko segurtasun-arauak.

Istripu-arriskuak ezaugarritzea.

Kutsadura-arriskuak ezaugarritzea.

Lanak egiten dituen bitartean jarrera ordenatua eta metodikoa izatea eta zailtasunen aurrean saiatuki jokatzeko.

Gizartearen ingurumen-ondarea eta kultura zaindu eta babesteko balioekiko konpromiso etikorako jarraibideak ezartzea.

Aldaketa-egoera batean agertzen diren prestakuntza-beharrak positibotzat hartzeko alde aurreko jarrera.

5. lanbide-modulua: Arrainen haztegiko teknikak

Kodea: 0707

Kurtsoa: 2

Iraupena: 231 ordu

A) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak.

1.– Arrainak haztearekin lotutako instalazioak eta tresneria erabiltzen ditu, horiek deskribatuta eta duten erabilera prozesuaren fase bakoitzarekin lotuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Tresneria eta materialak larbak ugaltu eta hazteko eragiketekin lotu ditu.



b) Tresneria eta materialak eskuliburu teknikoen eta/edo hazkuntza-baldintzen arabera prestatu ditu.

c) Neurketa-tresneria horien aplikazioarekin lotu du.

d) Prozesu bakoitzari dagozkion materialak eta tresneria erabili ditu.

e) Hazkuntza-prozesuan erabilitako tresneria eta materialak garbitu eta desinfektatu ditu.

f) Erabili ondoren, tresneria eta materialak biltegiratu, ordenatu eta sailkatu ditu.

2.– Ugaltzaileak maneiatzen ditu, ugalketa-teknikak deskribatuta eta aplikatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Prozesuaren fase guztietan maneian aplikatu beharreko kalitate-irizpideak identifikatu ditu.

b) Ugaltzaileak markatu ditu.

c) Berrogeialdiaren parametroak, eta tratamendu prebentiboak eta terapeutikoak aplikatu ditu.

d) Heltzeko eta erruteko fotofase- eta termofase-baldintzak aplikatu ditu.

e) Elikagai mota dagokion kantitatean eman du, elikadura-taulen eta hazkuntza-baldintzen arabera.

f) Masaje abdominaleko eta ernalketako teknikak aplikatu ditu.

g) Arrautzak bildu eta zenbatu ditu.

3.– Errunaldiak maneiatzen ditu, inkubazio-teknikak deskribatuta eta aplikatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Arrautzak inkugabailuetan banatu ditu, espezie bakoitzerako ezarritako dentsitateen arabera.

b) Tratamendu profilaktikoak aplikatu ditu.

c) Parametro zooteknikoak eta fisiko-kimikoak espezieen inkubazio-prozesuarekin lotu ditu.

d) Larbak bildu eta kuantifikatu ditu.

e) nbrioien garapen-faseak identifikatu ditu.

f) Prozesuaren kalitate-parametroak eta adierazleak erregistratu ditu.

g) Larbak larben hazkuntza-andeletara aldatu ditu.

4.– Larbak eta larba ondokoak haztearekin lotutako teknikak aplikatzen ditu, horien sekuentzia aplikatuta eta bakoitzerako berariazko metodologia aplikatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Larbak eta larba ondokoak haztearekin lotutako teknikak espezieekin eta hazkuntza-baldintzekin lotu ditu.

b) Fitoplanktona eta harrapakinak zenbatu, eta hazkuntza-andeletan banatu ditu.

c) Gas-maskuria puztearekin lotutako teknikak aplikatu ditu.

- d) Pentsuak espeziearen, eta hazkuntzako faseen eta baldintzen arabera dosifikatu ditu.
- e) Emariak hazkuntzako fasearen eta baldintzen arabera egokitu ditu.
- f) Hustubide-sareak banakoen tamaina kontuan izanda ipini ditu.
- g) LARBak berriro banatu ditu, horien dentsitatea hazkuntza-baldintzetara egokituta.
- h) Ordena- eta garbitasun-prozedurak errespetatu ditu.
- i) Datuak erregistratu eta kontrolatzeko informatika-tresnak erabili ditu.

5.– Arrainkumeak haztearekin lotutako teknikak aplikatzen ditu, espezie bakoitzerako bera-riazko metodologiari jarraituz.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Andeletan arrainkumeak harrapatu ditu, animalien osasunari eta ongizateari buruzko irizpi-deak aplikatuta.
- b) Arrainkumeak sailkatu ditu, emaitzazko populazioen batez besteko pisuari eta homogeneota-sunari buruzko irizpideak aplikatuta.
- c) Arrainkumeak andeletan berriro banatu ditu, dentsitatea hazkuntza-baldintzetara egokituta.
- d) Batez besteko pisuak eta aldakuntza-koefizienteak zehaztu ditu.
- e) Elikagaia tamainaren arabera egokitu eta banatu du.
- f) Maskuririk gabeko arrainak bereizi ditu.
- g) Malformazio mota bakoitza identifikatu du.
- h) Arrainkumeak garraiatzeko prestatu ditu, animalien osasunari eta dentsitateari buruzko iriz-pideen arabera.
- i) Ordena- eta garbitasun-prozedurak errespetatu ditu.

6.– Ugaltzaileen, larben eta larba ondokoen ingurunea eta ohiko portaera zuzenean behatuta aldaketak antzematen ditu, neurri zuzentzaileak aplikatzen ditu eta horien eragina egiaztatzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Arriskuen prebentzio-neurri gisa, hazkuntza-baldintzak behatzeak duen garrantzia baloratu du.
- b) Ingurunean eta organismoak hazkuntzan izan ohi duten portaeran izandako aldaketa nagusiak identifikatu ditu.
- c) Aplikatu beharreko neurri zuzentzaileak antzemandako anomaliarekin lotu ditu.
- d) Egoera bakoitzerako neurri zuzentzaile egokiak identifikatu ditu.
- e) Aldaketa zuzentzeko, protokoloetan adierazitako teknikak eta bitartekoak aplikatu ditu.
- f) Aplikatutako neurri zuzentzaileen eraginkortasuna egiaztatu du.
- g) Antzemandako anomaliak azkar jakinarazi ditu.

h) Aldaketak eta neurri zuzentzaileak erregistratu ditu.

7.– Parametro fisiko-kimikoak eta biologikoak neurtzen ditu, kasuak kasu dagozkion teknikak deskribatuta eta aplikatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Neurtu beharreko parametroak hazkuntzaren faseekin lotu ditu.

b) Biometriak egin ditu eta laginak hartu ditu, animalien populazio-adierazgarritasunari, osasunari eta ongizateari buruzko irizpideen arabera.

c) Kalibratutako neurketa-tresneriarekin parametro fisiko-kimikoen neurketak egin ditu.

d) Neurketa-tresneriaren eskuliburu teknikoetan ezarritako protokoloak aplikatu ditu.

e) Egindako neurketak espeziearen, eta hazkuntza-fasearen eta -egoeraren balio-mailarekin lotu ditu.

f) Neurketen desbideratzeak jakinarazi ditu.

g) Gauzatutako jardunei esker, mailaz kanpoko parametroak euren balio normaletara itzuli direla egiaztatu du.

h) Parametroak kontrol-orrietan erregistratu ditu.

8.– Garbiketako eta osasun-tratamenduetako zereginak egiten ditu, materialak eta produktuak identifikatuta, eta kasuak kasu horiek segurtasunez aplikatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Produktu kimikoak eta farmakologikoak identifikatu ditu, higieneari, prebentzioari eta sendaketari buruzko irizpideak kontuan izanda.

b) Garbiketa- eta higiene-teknikak hazkuntzaren fasea kontuan izanda aplikatu ditu.

c) Produktuen etiketako sinboloen esanahia eta haien iraungitze-data antzeman ditu.

d) Produktu kimikoak eta farmakologikoak ezarritako kontzentrazioen arabera prestatu ditu, andelaren bolumena eta/edo biomasa kontuan izanda.

e) Osasun-hesiak prestatu eta berritu ditu, produktuen eraginkortasunari eta jarduerari buruzko irizpideen arabera.

f) Produktuak hazkuntzaren ezaugarrien eta motaren arabera hornitu ditu.

g) Produktuak manipulatu eta aplikatzean, segurtasun-baldintzak errespetatu ditu.

9.– Laneko arriskuen prebentzioari eta ingurumen-babesari buruzko arauak bete ditu, eta arriskuak, eta horiei aurrea hartzeko neurriak eta tresneria identifikatu ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Norbera eta ingurumena babesteko beharrezko neurriak eta tresneria hautatu ditu.

b) Materialak, erremintak, tresnak, makinak eta garraiobideak manipulatzearen ondoriozko arriskuak eta arriskugarritasun-maila identifikatu ditu.

c) Segurtasun-arauak errespetatuz lan egin du tresneriarekin eta erremintekin.

d) Mekanizazioko materialak, erremintak eta tresnak manipulatzeko istripuen sorburu ohikoenak zein diren identifikatu du.

